


ttipi ttapa

2004ko martxoaren 18a • XXIV. urtea



Zurgintzari buruzko jardunaldiak Irunen 03


Zurgintzari eta altzarigintzari buruzko jardunaldi teknikoak antolatu ditu Irungo Bidasoa Institutuak. Bertan irakasle den M^a Jose Barriola leitzarrarekin izan gara.



Espainiako Parlamentuko bozak 04

Martxoaren 14an egin ziren Espainiako Parlamenturako eta Senaturako hauteskundeak. Nafarroa Bai koalizioak ordezkaria izanen du Madril.

23 Bide segurtasuneko saria jaso du Lekaroz-Elizondo Institutuak



MUEBLES AMETS

larunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak
AUKERA HANDIAK

BERRIA EUROPAN



ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

DATUAK...

- Leitzan sortu eta Lesakan bizi den Mari Jose Barriola Irungo Bidasoa Institutuko irakaslea da.
- Institutu honek zurgintza eta altzarigintza lanbide arloko X. jardunaldi teknikoak antolatu ditu apirilaren 1etik 3ra. Ficobako areto nagusian arlo hauekin lotutako hainbat ponentzia, tresna eta programaa informatiko aurkeztuko dira.
- Seguritatea eta arriskuen prebentzioari buruzko txostena aurkeztuko du Mari Josek.



Mari Jose BARRIOLA *Bidasoa institutuko irakaslea*

ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN

«Lan arriskuen prebentzioan denok gehiago egiten ahal dugu egunero»

Aitor AROTZENA

Nori zuzenduak dira jardunaldi hauek?

Bidasoa Institutuko zurgintza mintegiak antolatu ditu jardunaldi hauek. Apirilaren 1ean jendea elkartuko da eta dokumentazioa banatuko da. Apirilaren 2an ponentzia teknikoak hasiko dira, gehien bat esperientziak trukatzeko. Goizean Ficoba auditorioan egingen dira. Arratsaldean irakasle guztiak gure zentzura joanen dira goizeko ponentziak zentroan eta errealitatean ikustera. Apirilaren 3ko jardunaldia enpresa munduarekiko harremana gehiago sendotzeko bideratua da. Gure ikasleek enpresatan egiten dituzte praktikak eta enpresarietara institutua eta planteatzen ditugun teknika berriak ezagutzeko baliagarria izanen da. Beraz, irakasle, ikasle eta enpresarietara irekiak dira jardunaldi hauek, baina nahi duen guztiak har dezake parte. Stand batzuk ere izanen dira, babes-tresnak ikusteko, hornitzaile ezberdinen produktuak ezagutzeko...

Zer egin behar du bertan parte hartu nahi duenak?

«Irakasle, ikasle eta enpresarietara irekiak dira jardunaldi hauek, baina nahi duen guztiak har dezake parte. Stand batzuk ere izanen dira»

Datu-base bat osatzen ari gara eta enpresa askori gonbidapena bidali zaie. Interesaturen bati gonbidapena ailegatzeko ez bazaio, gure zentzura-ekin harremanean jarri daiteke, internet bidez (www.fpbidasoa.org), telefonoz (943 666010) edo faxez (943 615380). Interesaturik dagoen edo nori parte har dezake.

Zuk zeronek, seguritatea eta arriskuen prebentzioari buruzko ponentzia aurkeztuko duzu. Nahiko garrantzi ematen al zaio seguritateari sektore honetan?





1995ean atera zen lan-arriskuari buruzko legea eta enpresari guztiak bete behar dute lege hori. Zurgintza lanbide arriskutsua da, makina zorrotzak... zentzura saiaterazten gara ikasleei prebentzioa eta arriskuak gutxitzen edo kontrolatzen irakasten. Lan-

postuz lanpostu ohikoenak diren istripuak eta nola kontrolatu erakusten diegu, zein prebentzio sistema dau den tupian aritzeko, zein seguritate neurri mantendu behar diren tailerretan... Gero, egunero lanean ari garenen, prebentzio aldetik zerbait gehiago egiten ahal dugula denok badakigu eta hortan saiatzen gara.

Nolako etorkizuna ikusten diozu zurgintza eta moblegintza arloari?

Gure institutuan zurgintza eta altzarigintza bi modulo daude. Erdi ziklokoan, lehen urtean, fabrikazio eta instalazio zikloan ikasten dute, teoria eta praktika. Bigarren urtean, martxo-ra arte ikastetxean egoten dira eta martxotik aurrera enpresatan aritzen dira praktiketan, instalazioetan, sukaldeak, tarimak, ateak, leihoak montatzen... Normalki enpresa horiek interesatuak egoten dira gero ikasleak kontratu batekin gelditzeko. Langai ize-neko lan-poltsa ere badugu eta lan-egintza asko izaten dira. Goi mailako zikloan diseinua gehiago lantzen da, bulego teknikoan lan egiteko. Goi mailakoek diseinatutakoa erdi mailakoek fabrikatuko lukete tailerretan.

ESPANIARAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (2004/III/14)



BAZTANALDEA

	2000	2004
NaBai	-	1938
UPN	2248	1468
PSOE	432	553
EA-EAJ	1103	-


BORTZIRIAK

	2000	2004
NABai	-	2278
UPN	1301	834
PSOE	464	738
EA-EAJ	1342	-

LEITZALDEA

	2000	2004
NABai	-	1098
Nuloak	-	576
UPN	430	329
EA-EAJ	421	-


ALDERDIRIK BOZKATUENAK ESKUALDEKA



MALERREKA


	2000	2004
NABai	-	1281
UPN	1004	823
PSOE	252	411
Nuloak	-	252

ESKUALDEAN ALDERDI BAKOITZAK LORTU DITUEN EMAITZAK



- Nafarroa Bai koalizioa da eskualdeko alderirik bozkatuena, 6.752 boturekin. Herri guzietan lortu du botuen gehiengoa Beintza-Labaien ezik. Bertan UPN nagusitu da 5 boturen aldearekin.
- UPNk nabarmen beheiti egin du eta Espainiako hauteskundeetan tradizionalki irabazi izan duen Baztan eta Malerrekako herrietan bigarren edo hirugarren indarra da orain.
- PSOEk goiti egin



- du eskualdean, baina ez estatuan haina. Duela lau urteko hauteskundeetan baino kasik 700 botu gehiago eskuratu ditu.
- IU berdintsu mantentzen da eta CDNk inoiz izan dituen emaitzarik kaxkarrenak eskuratu ditu.



Oharra:

- **EA-EAJ:** 1991tik 1996ra eta 2000an grisean dauden datuak, bi alderdiek lortutako botuen batuketara da. 2004an Nafarroa Bai koalizioan izan dira bi alderdiak, Aralar eta Batzarrarekin batera.
- **IU:** 1999ko datuak Europako Parlamenturako lortutako botuak dira.
- 2000. urtean ezker abertzaleak abstentzioa bultzatu zuen eta parte hartzea %50,17koa bertzerik ez zen izan. Aurten, baliogabetzat eman den Autodeterminazioaren aldeko botua eskatu dute.

- Ezker abertzaleak bultzatutako Auto-determinazioaren aldeko boza (baliogabetua) indartsu ageri da Leitzaldean batez ere eta Bortzirietan.


ALDERDIRIK BOZKATUENAK HERRIZ HERRI (2004/III/14)


	Zentsoa		Parte hartzea		Na Bai		CDN		EA-EA		IU		PSOE		UPN		Baliogabeak		Xuriak	
	2000	2004	2000*	2004	2000	2004	2000	2004	2000*	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
ARANO	133	63	33	63	-	35	0	2	17	-	0	4	2	1	8	2	x	17	x	0
ARANTZA	565	404	255	404	-	251	0	1	136	-	4	5	29	24	78	36	x	83	x	2
ARESO	254	183	120	183	-	64	62	29	22	-	0	1	15	16	21	30	x	42	x	1
BAZTAN	6361	4626	3776	4626	-	1938	40	28	1025	-	57	90	404	553	2047	1468	x	433	x	69
BEINTZA-LABAIEN	235	136	133	136	-	43	2	2	24	-	2	6	8	23	90	48	x	8	x	2
BERA	2915	2014	1432	2014	-	923	22	10	416	-	72	85	249	366	562	372	x	205	x	23
BERTIZARANA	517	342	307	342	-	161	7	1	94	-	8	9	47	46	132	85	x	32	x	4
DONAMARIA	328	240	205	240	-	123	0	1	79	-	3	3	19	25	90	57	x	17	x	8
DONEZTEBE	1082	806	672	806	-	371	10	4	252	-	17	15	87	132	282	224	x	45	x	7
ELGORRIAGA	173	128	99	128	-	68	3	3	31	-	1	2	11	11	43	24	x	14	x	3
ERATSUN	164	107	85	107	-	68	0	0	39	-	1	2	2	12	38	19	x	4	x	0
ETXALAR	655	407	312	407	-	163	1	1	99	-	2	13	29	40	162	91	x	89	x	8
EZKURRA	192	102	74	102	-	55	9	0	18	-	5	3	5	11	29	22	x	6	x	1
GOIZUETA	714	430	111	430	-	204	1	1	81	-	1	1	7	11	18	15	x	197	x	1
IGANTZI	502	372	293	372	-	176	1	0	122	-	9	9	30	63	120	65	x	40	x	9
ITUREN	387	292	171	292	-	158	2	0	104	-	2	6	14	37	40	33	x	49	x	6
LEITZA	2474	1616	869	1616	-	795	33	5	301	-	18	34	92	151	383	282	x	320	x	18
LESAKA	2254	1610	1198	1610	-	765	6	7	569	-	37	38	127	245	379	270	x	266	x	9
OITZ	115	70	59	70	-	34	1	0	23	-	3	3	5	8	21	13	x	8	x	3
SALDIAS	115	78	62	78	-	39	3	3	19	-	1	5	3	3	29	12	x	9	x	4
SUNBILLA	579	406	328	406	-	244	2	1x	141	-	2	4	37	81	127	53	x	16	x	4
URDAZUBI	313	232	223	232	-	102	4	5	65	-	1	4	18	37	125	66	x	7	x	9
URROTZ	161	95	88	95	-	43	1	2	14	-	0	2	4	9	62	30	x	3	x	4
ZUBIETA	257	139	78	139	-	65	2	0	25	-	1	1	10	13	21	12	x	45	x	0
ZUGARRAMURDI	198	137	112	137	-	55	0	2	13	-	1	6	10	23	76	36	x	10	x	3

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 6.000 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Sasaki, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Gofii.

Kolaboratzaileak: Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Maletrrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 26 €

Espainia 26 €

Ipar Euskal Herria 36 €

Europa 36 €

Amerika 107 €

Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso 21 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Euskal Herrian euskaraz???

Badirudi erraxa dela baina nori ez zaio suertatu medikura joatea eta hau erdalduna izatea? Edo jatetxe bateko karta erdera hutsean topatzea? Udal langilearekin euskaraz ezin ulertzea? Banketxeko paperak erdara hutsean jasotzea? Nafar Gobernuarekiko harremanak euskara hutsez ezinezko izatea? Dendari erdaldunak topatzea? Ostalariarekin euskaraz ezin ulertzea? Epaila erdaldunak topatzea? Euskara ikasteko trabak baino ez izatea? Sanz ingelesaren alde jo ta su aditzea, euskara zanpatzen duen bitartean? Egunkaria erostera joan eta itxia eta debekatua zegoela jakitea?

Hau ikusita nork ukatuko du euskaldunok hizkuntza eskubideak urratuak ditugula? Alderantziz, hamaika arrazoi ditugu gure hizkuntzaren alde agertzeko?

Ohartu hizkuntza eskubideak errespetatuak izatea gure esku ere badagoela eta hortaz, exigitzeko eskubidea dugula. Eskatzen hasi behar dugu gaurdanik, inori eta deuseri espetu gabe. Guk, euskaldunok, ez baldin badugu gure hizkuntzaren alde egiten nork egiten du? Euskara euskaldunon oinarria da. Euskarak bizirauten badu guk biziraunen dugu, eta alderantziz. Gure esku dago beraz norberak berean eta elkarlanean zerbait egitea aintzineratuz segitzeko.

Guk apirilaren 4an hizkuntza eskubideen afera hori jendarteratu nahi dugu, kontzientzia sortzen jarraitu eta egune-

ro garrantzitsu den bezala apirilaren 4an euskaltzale edota euskalgintzako kide guziak Lesakan egoteak berebiziko garrantzia du. Dago-kiguna aldarrikatu eta aldi berean euskaraz denak elkarrekin ongi pasatzeko aukera izanen dugulako.

Gure esku ere badagoelako, hizkuntza eskubideak borrokatu: Bai Ofizialtasunari.

Lesakako Euskal Herrian Euskaraz

Etxalarko herriak jakin dezan

Aitortu behar dugu le-
rrero hauek idatzi eta plazu-
tatu aitzinetik gure zalant-
zak izan ditugula, Kultur
Taldea honek ez baitu inolako polemikarik sortu nahi (horren arriskua ikusten dugu, gauza batzuk publikoki argitu bai-
zik. (Hala izan bedi!))

Etxalarko EAK etxez etxe banatu duen berri-
paper batean, Kultur
Etxeari dagokion tarte-
an, gure taldearen izena agertzen ez bada ere, zu-
zenezan aludituta sentitu
gara, Etxalarko EAK, uda-
lak edozein talderi Kul-
tur Etxeko giltzak uztea-
ren kontra dagoela dio-
nean, ederki baitaki Al-
txata dela momentuz gil-
tza horiek eskatu eta ja-
so dituen talde bakarra.

Zilegia izanik ere, guk
ulertzen ez dugun jarre-
ra honen aitzinean, EAK
emandako arrazoiak fun-
tsik gabekoak iruditzen
zaizkigulako, azalpen
hauek eman nahi diz-
kiogu, bai EAri, eta bai-
ta Etxalarko herriari ere.

1.- Altxatak Kultur

Etxeko giltzak eskatu ba-
zituena (udalak eskaera
onartu zuela) bileren or-
dutegia eta Kultur Etxe-
ko ordutegia elkarrekin
ez zirelako ongi heldu
izan zen. Arazo horrek,
behin eta berriz, Kultur
Etxeko langilea bere lan
ordutegitik kanpo mo-
lestatu behar izatera era-
maten gintuelarik. Orain,
bertako giltzak izanaga-
tik ere, bileraren bat egin
baino lehen Kultur Etxe-
ko langileari bilera horren
berri ematen diogu: egu-
na, ordua, etab.

2.- Altxata ez dela
"edozein" talde argitu
nahiko genioke EAri. 10
urtetik goiti daramazkigu
kultur alorrean lan egi-
ten, herrian egiten diren
kultur ekitaldi gehiene-
tan parte hartuz, hauek
antolatuz edo bultzatuz,
(Gasna Feria eguna,
Usategietako Igandea,
Olentzero, Ipuin topake-
ta, Iñauteriak, herriko
dantzarien ikastaroak, pi-
lota eskola, mendi irtee-
rak, antzerki eta dantza
taldearen emanaldiak,
dantzari ttikien afaria,
dantzarien arropen ar-
dura...); horretarako 100
bat bazkideen babesa
dugularik. Dagoeneko
bada garaia bizi zareten
mundu horretatik Etxa-
larko mundu honetara
jausteko!!!!


3.- Altxatak edozein
kultur taldek bezalaxe ur-
tero bere batzarra buru-
tzen du, Diru sarrerena eta
gastuen balantzeak egin,
aurrekontuak, egindako
lanen balorazioa, eta jun-
ta berri edota junta za-
harrari bertze urte bate-
rako babesa ematen
zaio, juntako kideen ize-
nak publikoak eginez.

4.- Orain arte kultur
talde honek harreman
ona izan du herriko uda-
larekin eta aitzinerat ere
hala izanen dela espero

dugu. Udalak dirulagun-
tzak eta gure tresneria
gordetzeko tokia eskai-
ni izan digu, baita Herri-
ko Etxeko langilea den
Joxe Angelen laguntza,
honi hamaika buru-haus-
te sortu izan dizkiogula.
(Eskerrik asko Joxe An-
gel!!). Altxatak berriz, be-
ti utzi izan dizkio bere aul-
ki, mahai, mikrofono eta
abarrak udalari, baita es-
katu dizkigun bertze edo-
zein talde edo pertsonen
ere: eskolari, auzoetako
bazkariak antolatzen di-
tuztenei, herri mailako
"asau" eta bazkari-afari-
tarako ..., eta horrela se-
gituko du.

Urte guzti hauetan,
persona anitz ibili gara
Altxatan, bai juntan, eta
baita juntatik kanpo ere.
Akatsak ere izanen ge-
nituen, baina borondate
ona ezin zaigu ukatu. Bo-
rondate on honekin se-
gituko dugu lanean, bi-
dean harriak arrautzen
baditugu ere.

Altxata Etxalarko kultur elkarteko junta



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2004-III-08

«Hamabost bat urterekin, herrian koadrilarekin ibiltzen hasi nintzenez, hasi nintzen euskaraz egiten. Arrebak ere badaki baina hanka sartzeko nik baino beldur gehiago duenez, ez da ausartzen. Niri, aldiz, hanka-sartzeak egiteak ez dit horrenbeste axola».

«Harriturik egoten nintzen bertsolarie begira. Doinuak gustatzen zitzaizkidan eta edozein gai jarrita inprobisatzeko zuten gaitasuna miresten nuen».

Diego RIAÑO
Leitzako bertsolaria
Gara 2004-03-08

«Bortzerrietan jendea irekia da, solasaldi erraxekoa, garai berrietara egokitu dena, baina aldi berean bere hizkuntza berexia gorde duena eta solasaren bidez ohiturak mantendu dituena. Guziek jarrera ona izan zuten. Kontaktatu ez dugun pertsona aunitz izanen dira, historia interesgarriak dituztenak. Adineko jendeak altxor bat dauka bere hizkeran, eta hori baloratzen eta gordetzen jakin behar dute».

Maite LAKAR
Bortzietako ahozko tradizioari buruzko ikerlaria
D.Navarra 2004-03-10

• 11 GALDERA LABUR •

Zenbat urte zahi-gizon bezala?
Hogei urte. 42rekin utzi nuen zahar-tzen ari nintzela konturatu orduko.

Zahiak berak nolakoa izan behar du?
Haizez betea, dudarik gabe. Gaur esponjaz betetzen dute eta soinu makala ateratzen du. Gure garaitan zahia makilaz Beheko dendako atarian jo eta plazatik aditzen zen soinua.

Nolako oroimenak dituzu iñotetaz?
Ikaragarriak. Orduan 13-14 laguneko taldea izaten zen mozorrotan eta giro zoragarrian ospatzen genituen.

Mozorroen erdiak emakumeak dira orain. Zer iruditzen zaizu?
Arront ongi. Gainera neskak dantzari hobeak dira eta taldea edertu egiten du horrek.

Zer diferentzi nagusi ikusten duzu orduko eta oraingo iñoteen artean?
Asko, baina orduan mozorroek zuten miresmenaz oroitzen naiz. Zahi-dantza bukatu orduko plazako soinua has-ten zen, eta herriko neska ederrenak mozorroen esperoan egoten ziren. Guk aukeratzen genuen dantza laguna.

Nola bizitzen dituzu gaur egun iño-teak?
Ilusio handiz oraindik. Astelehenean Ataborra igotzen gara familia ber-rendu ederrarekin mozorroak hartze-ra. Taldearekin dantzatzen dugu gero denak. Astearteko herriko festaz ere asko disfrutatzen dut.

Ongi dantzatzen al dute oraingo zahiek?
Niri gustatzen zaidan bezala ez. Nik Kaperottikiko Rufinorekin ikasi nuen. Huraxe zen ezagutu dudan zahirik ho-berena. Nik ere batzuei erakutsi diet, baina oraingoek ezberdin egiten dute.

Zure beste bi anai ere zahi izan-ko dira. Tximistatarrek grazi bereziren bat al duzue zahi dantzarako?

Dantzarako abilezia izatea beharrez-koa dela uste dut. Danielek eta Agux-tinek ere ez zuten batere gaizki egiten. **Eta semeek ba al dute zaletasunik?** Josu atera izan da eta ongi egiten zuen. Jon berriz oraindik gaztea da, baina eskolako umeen taldean zahia izana da hura ere behin baino gehiagotan. **Zergatik ez diete mozorroei azken urteotan aterik irekitzen baserri akotan?**

Arront gaizki iruditzen zait. Usadioari eutsi behar zaio. Herrian bizi diren ba-serritarrek ere igo behar lukete astele-henean mozorroak hartzera. Gure ga-raian baserri guzietan gelditzen ginen, gutxienez fandango bat dantzatzera. **Ohitura aldaketak gizartean, herrian gero eta gazte gutxiago, baserri-tarrekin ak... No te iraur dute G zuetako iñoteek?**



Joxe Mari NARBARTE
Goizuetako zahagi beteranoa

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

LARRALDEA
SAGAROTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121



Helbide berria:

Zalain auzoan,
Aceralia fabrikaren parean
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333
BERA

DROGUERIA
MOLINERO

PINTURAK
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

ERREPIDEAK

Herrilan kontseilariarekin egindako bilera baikor hartu du Auzolanek

Autobabes neurriekin segitzeko deia egin du herri ekimenak

ttipi-ttapa

Otsailaren 27an Auzolan ekimeneko hiru ordezkari Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuko Herrilan departamenduko kontseilariarekin eta Zuzendari Nagusi berriarekin bildu ziren. Nafarroako Gobernuko ordezkariak Auzolanek aitzinetik egindako eskaerei erantzun zieten. Herrilan departamenduak mamitutako txostenak, alde batetik, errepidearen kontserbazioari, seinalizazioari eta balizamenduari buruzko testua jasotzen du, planoak eta aurrekontuak barne. Bertzetik, egutegia ere agertzen da eta martxoan lanean hasteko intentzioa adierazten da. Ildo beretik, Larrakaitz eta Irun arteko errepide zatiaren egokitze eta seinalizazio lanak sei hilabete-tan akautuko direla aurrirakusi dute. Bertzalde, ahoz, berriz ere baieztatu diete Auzolaneko ordezkariak Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen duen



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Otsailaren 29an gertatu zen N-121-A errepidean azken istripu larria. Valentziako matrikula zuen kamioia baten erremolkea irauli zen Enderlatsan eta auto ilarak sortu zituen. Zorionez, gidaria onik atera zen.

zati honen trazatua guztiz eta behin betiko berritzeko lanak egin ahal izateko, beharrezkoa den akordio instituzionala laster sinatuko dela, nahiz eta oraindik datarik ez den zehaztu. Azkenik, Nafarroak horretarako eskumenik ez duelako nazioarteko bi-

daiak egiten dituzten kamioiak A15 autobidetik desbideratzea aztertu dadin, eskaera hori Madrileko dagokion Ministeriora helaraziko dela adierazi die Auzolanek nafar arduradunei.

Bilera honek zituen helburuak ongi eta zuzen bete dituela, positi-

boa izan dela eta lanak bide onetik doazela jakinarazi zuen Auzolan ekimenak martxoaren 3an Beran egindako azken bileran. Herritarrek autobabeserako seinalea jartzen eta ekonomikoki laguntzen segi dezaten animatu ditu Auzolanek.



Ikasleen artelanak Elizondoko Arizkunenean

Lekarozko Irakasle Laguntza Zentroak «Adierazten irakatsi, begiratzen ikasi» mintegia burutu zuen iaz, Inmaculada Panadés eta Neus Bruguera irakasleen zuzendaritzapean, inguruko irakaslegoaren partehartzearekin. Mintegi honetan marrazketa, kolorea, konposaketa eta bolumenari buruz egindako lan proposamenak Haur eta Lehen Hezkuntzako geletan praktikan jarri ziren. Ikasleen ekoizpenekin Elizondoko Arizkunenean Kultur Etxean erakusketa antolatu da, martxoaren 16tik apirilaren 2a arte, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

Alzuri
Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak
Tfnoa: 948 630 370
BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

bortzirUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK
PLANOAK
FOTOKOPIAK
KOLORETAN
INBIKULAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
PAPERTEGIA
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ZJ
Zalain
jatebrea
Tfnoa: 948 630 899
Bera - Nafarroa

BERA

Euskararen aldeko eguna ospatuko da martxoaren 20an

Hilabetero ekitaldiak antolatzeko asmoa du Gazte Asanbladak

Amaia eta Ainhoa

Berako Gazte Asanblada, otsailean egin zuen aurkezpenaren ondoren, gogotsu ari da lanean euskara eta aisialdiaren inguruan. Hilabetero ekitaldiaren bat antolatzeko asmoa dute gazteek eta zehazki martxorako bi prestatu dituzte. Alde batetik, datorren martxoaren 20an, larunbatan, "Euskararen aldeko eguna" izanen da. Arratsaldeko 15:30etan solasaldi batekin emango diote hasiera egunari. Lamotenean izanen da euskararen inguruko hitzaldia eta oraindik konfirmatzeko badago ere, Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta gonbidatuak izan dira "Euskara lardaskatzeko manerak" zein diren kontatzeko. Antzerkiak ere izanen du tokia egun honetan, Antzeko Parezido antzerki taldeak Kultur Etxean 17:00etan antzeslanen bat eskainiko duelarik. Arratsaldean Eztegarra pilotalekuan mural bat margotzeko asmoa ere agertu dute. Eta egunari akabera emateko, sagardotegira irteera antolatu dute. Hernaniko Etxeberria sagardotegian afa-



ARTXIBOKOA

Txarandaka taldea Espainiako quad txapelketan Martxoaren 7an jokatu zen Errioxan, Espainiako Ipar aldeko quad txapelketaren proba bat, Moto Club Rioja taldeak antolatuta. Bikoteka, hiru orduko erresistentzia froga izan zen El Corvo mendian eta Berako Txarandaka taldea, Iñaki Irigoien eta Ricardo Bazan gidariekin, bigarren izan zen maila nagusian, Marc Robert eta Ramon Fort frantziarren gibeletik. Hirugarren postuan Sergio Alceda eta Javier Carranza sailkatu ziren. Probaren lehendabiziko zatian aitzinetik izan ziren Txarandakakoak, baina gero ezin izan zioten eutsi frantziarrei. Mugatutako mailan, Hita eta Rey madrildarren eta Lujanbio eta Latorre euskaldunen arteko borroka izan zen azken itzulira arte, baina azkenean madrildarrak gailendu ziren. Aipatzekoa da, mugatutako maila honetan bi emakumek osatutako taldea atera zela, Rocio Marquez arabarrak eta Laura Fernandez leondarrak osatutakoa, hain zuzen.

ria eginen da eta autobusa eta afariaren prezioa 25 eurokoa izanen da.

DROGA HIZPIDE

Bertzalde, martxoaren 26ean drogaren in-

guruko hitzaldia antolatu du Gazte Asanbladak. Lehendabizi bideo emanaldi bat izanen da eta ondoren Justo de la Cuevasen solasaldia aditu ahal izanen da. Kultur Etxean izanen da

hau ere 20:30etan. Honetaz gain, gogoratu ortzilerok Gure Txokoa Elkartearen elkarten direla bilkurak egiteko eta hauetan parte hartzeko jendea animatu nahi dutela.

FLASH

Gure Txokoa elkarteko urteko batzarra

Datorren apirilaren 2ean izango da Gure Txokoa Elkarteak urtero egiten den Batzar Orokorra lamotenean 20:00etan. Gai ordena hauxe izango da: azken bileraren akta irakurri eta aprobata, kontuen onartzea, Batzordearen azken ekintzak, erabakiak eta egitasmoak eta bukatzeko eskaerak eta galderak. Bertzalde, ohar honen bidez Gure Txokoa Elkarteko bazkideei gogorarazi nahi zaie lau urterako (2002-2006) balioa duen bazkide txartela lamotenean jasotzen ahal dela, asteartero, 20:00etatik 21:00etara.

Erakusketa

Martxoaren 16tik apirilaren 3ra Kultur Etxeko Erakusketa Gelan "Aintzinako eta gaurko maiak" erakusketa ikusi ahal izanen da. Empresa y Solidaridad Fundazioak prestatua da eta astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara zabalik izanen da.

Udal zergak

Martxoaren 4tik apirilaren 10era arte zabaldu dago 2004. urteko ibilgailuen gaineko zergaren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu erre-kargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

KATER - BIKE
Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kantitonberri 1, bis • BERA
Fax • Tel: 948-631218

BAR BOTXO OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

Urteko batzarrak egin dituzte Beti Gaztek eta San Fermin erretiratuen elkarteak

Mairu antzerki taldeak bere lan berrirako Euskara Mankomunitatearen beka jasoko du

Aitor AROTZENA

Otsailaren 27an egin zuen Beti Gazte Elkar-teak urteko ohiko batzar orokorra. Joan den urteko batzarraren akta irakurri eta onartu zuten bazkideek. Ondotik, joan den urtean egindako ekitaldiak eta kontuen balantzearen berri emanzen. Iaz 56.855,64 euroko diru-sarrerak izan zituen Beti Gazte eta 65.073,25 euroko gastuak. Hau da, 8.217,61 euroko diru gailerak izan zituen. Gasturik haundiena, noski, futbolak eragin zuen, 35.145 euro, erregional, jubenil, kadete, infantil eta emakumeen taldeen artean eta futbol zelaila, futbol eskola eta bertze gastuen artean banatua. Egoitzan 7.312 euro gastatu ziren, herri kirolean 3.480 euro, mendian 3.239 euro eta nazioarteko xake irekia antolatzen 2.674 euro. Diru-sarrerarik handiena ere futbolak ekarri zuen, 16.609 euro, 15.163 euro bazkideen kuotaren bidez eta 16.248 euro bertze diru-sarrera batzuen bidez, dirulaguntzak eta gisakoak alegia.

Joan den urteko defizita kontuan hartuz, aurtengo aurrekontuan



superabita edo irabaziak aurrikusi ditu Beti Gaztek. Guzira, 91.510 euroko dirusarrerak eta 81.000 euroko gastuak aurrikusi ditu, 10.510 euroko superabitarekin. Futboleak, 23.900 euroko sarrerak eta 35.300 euroko gastuak aurrikusi dira. Berriki Glasgow jokatu den Munduko sokatira txapelketa dela medio, herri kiroleko gastua nabarmen igoko da aurtengoa, 23.500 eurora, baina dirusarrerak ere 21.500 eurokoak izanen dira atal honetan. Bazkideen kuota-

rekin 15.000 euro eskuratuko dira eta bertze laguntza eta diru iturrien bidez 16.000 euro.

Osasunarekin eta Caja Ruralekin sinatutako hitzarmenei buruz solastu zen ondotik. Jakina denez, iazko ferietan hitzarmena sinatu zen Osasunarekin, hurrengo bi urteetan elkarlanean aritzeko. Zuzendaritza batzordean ez da aldaketa handirik egingen. Herri Kirol bokalian kide berriren bat sartu da eta Salvador lantzik segituko du lehendakari postuan.

ARTXIBOKOA

Mairu antzerki tailerraren «Erregea, soldadua eta bufoia» antzezlanak jasoko du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak emandako kafe antzerkirako beka, 2.000 eurokoa. Gaizka Sarasola da antzezlanaren egilea eta epaimahaiak saria ematerakoan, aurkeztutako testuaren kalitatea, publikoari hurbilekoa egingen zaion proposamena izatea eta talde amateurra eta tiki-izatea hartu dituen kontuan, bertzeak bertze. Mairu antzerki tailerrak saritutako lana Beran eta Etxalarren antzeztu beharko du, irailetik aitzinera.

San Fermin elkarteak

Joan den otsailaren 14an egin zuen lesakako San Fermin erretiratuen elkarteak urteko batzarrak, elkartearen hamabigarrena. Lehenik joan den urteko batzarraren akta irakurri eta onartu zen. Joan den urtean 297,25 euroko superabita izan zuen elkarteak. 25.408,91 euroko diru sarrerak eta 25.111,66 euroko gastuak izan baitzituen. Gasturik handiena ekitaldi eta bidai ezberdinen antolatzen egin zen,

19.094 euro; ostatuaren arduradunak 3.245 euro eraman zituen eta mantenimendu gastuetarako izan ziren gainerako 2.770 euroak.

Diru sarrerei dago kienez, haundiena bazkariak ordaintzeko bildutakoa izan zen, 11.090 euro. Bazkideen urteroko kuotaren bidez 3.089 euro lortu ziren. Nafarroako Gobernutik 3.950 euroko dirulaguntza ailegatu zen, Herriko Etxetik 2.930 eurokoa eta Nafarroako Kutxatik 1.953 eurokoa.

Ondotik, aurtengorako prestatu duten aurrekontuaren eta ekitaldien berri eman zuten. Aitzinera begira lehendabiziko ekitaldia, martxoaren 19rako prestatu duten aita eta aita-txien eguneko bazkaria izanen da. Bertze aldeetik, martxoaren 8an hasi ziren maiatza bitarte jokatu diren karta joku ezberdinetako txapelketak. Astelehene-tan musean arituko dira, asteartean seietara eta ortzegunetan des-pistera.

Aurten Santander, Otsagi, Ordizia, Erribera, Errioxa eta San Juan Xarrera ateraldiak egingen ditu erretiratuen elkarteak.

Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

Tfnoa: 948 637 127 LESAKA

LENTZERIA MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Hainbat ekitaldi antolatu dira Kultur Etxean hilabete honetarako

Clara Santamariaren margolanak ikusgai izanen dira

Joseba eta Nerea

Kultur ekitaldiz josia heldu zaigu martxoan. Asteazkenean, martxoak 17, izan da lehenbizikoa. Berako Isidoro Fagoaga musika eskolako ikasleen eskutik kontzertua egin da. Lehenbiziko herrian barna kalejira egin zuten eta ondotik Kultur Etxean bildu. Heldu den asteazkenean, martxoak 24, hitzaldia emanen du Foresna, Nafarroako baso-elkarteak 19:30etan. Solasaldiko gaien artean 2004-2005eko basolan partikular eta komunalen dirulaguntzak eta 2004-2005eko landen oihaneztatzerako dirulaguntzak tratatuko dira. Azkenik, martxoaren 18tik apirilaren 18ra bitartean margo-erakusketa bat egonen da ikusgai. Elizondoko Clara Santamariak paratuko du olio-pintura oihalean eginiko margolanen erakusketa eta martxoaren 18an aurkezpena egingen du 18:00etan. Erakusketa bisi-

tatzeko ordutegia 16:00etatik 19:40etara lanegunetan eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara asteburu eta besta egunetan.

Igerilekuak

Hilabete batzuk gelditzen dira oraindik uda ailegatu eta horrekin batera eguraldi hobekak etortzeko. Hala ere, udalak duela hilabete bat ateri zuen igerilekuen funtzionamendu, garbiketa eta mantenimendu lanak egiteko esleipenaren deialdia. Asteazken honetan, martxoak 17, akautu da epea bi hauetatik edozein proposamen aurkeztu ahal izan dute eta bertze baldintzak ere udal idazkaritzan egon dira interesatuen eskura. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez dugu aurkeztutako inorren izeirik, baina datuak eskuratzean, emanen dizkizuegu hurrengo udarako igerilekuen ardura hartuko dutenen izenak.



Ttipi-ttaparen toki aldatzea

Beratik Etxalarra

Dagoeneko denentzat ezaguna da, ttipi-ttapak Berako oraingo egoitza utzi beharra daukala, Udalak obrak egin behar dituela eta. Han bertan bertze lekuri ez eta, Etxalarko Eskola Zaharretan egingen du bere lana hilabete batzuz, Etxalarko Udalarekin akordioa sinatu ondotik. Hilabete batzuk erratean, urte pare bat inguru izaten ahal da.

Eskola Zaharrek egokitzea

Ttipi-ttapak Etxalarren bere lana egin ahal izateko, zenbait konponetze eta moldatze beharrezkoak dira, eta horretan ari dira. Leiho eta atea berritzea, eskola bitan banatzen duen paretan pasabide bat irekitzea, eta egoitza barnetik pintatu eta argi-instalazioa berritzea. Lan hauek 41.000 euroko kostua izanen dute. Beraietatik 14.000 mila Leader+ programak subentziona-tuak dira, eta 27.000 euro Udalak ordainduko ditu. Ttipi-ttaparen bizkar gelditu da kasik bertze 30.000

euroko gastua, eta gastu horretan sartzen da barneko mobleri eta tresneri guztiak paratzea, instalazio informatikoak, telebistako antena eta loturak, eta egunez eguneko funtzionamendu arruntean sortzen diren bertze gastuak, telefono, argi eta zaborrak diren bezala. Beran egiten du eta Etxalarren ere Lizenzia Fiskala pagatuko du. Eskola Zaharren ezkerreko aldean dagoen bileragela, azkenik, Etxalarko Ehiztarien Elkartearekin konpartituko du ttipi-ttapak Etxalarren dagoen bitartean, eta gela horretako mobleak ere ttipi-ttapak jarriko ditu.

Ondotik Lesakara

Hainbat solas egin bada ere Beran bertze tokirik eskuratzeko, momentuz ez zen ikusten. Orain, berri, Lesakako Udalak egin dio leku eskaintza ttipi-ttapari, berehala egingen hasi behar duten bulego-etxe berri batean. Ttipi-ttapak onartu du eskaintza, eta hura prestatu bitartean egonen da Etxalarren.

Altzate, 19•948630786 •BERA

© 948631076 •BERA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

HERRIKO
IZAYU - JATETXEA
Muntatzen ditugu: 948 63 74 60
Etxea • NAFARROA

IGANTZI

Bigarren deialdian, larunbatean egitekoa zen Biltokiren batzarra

Eskolako 9 haur eskiatzera joanen dira heldu den astean Belaguara

Oskar TXOPERENA

Otsailaren 28rako zegoen deitua Biltoki Elkarteko urteko batzar nagusia. Bada, bazkideen %25a elkartu ez zenez, joan den larunbatean, martxoak 13, zuten egitekoa bigarren saialdia. Berrehun bazkide inguru ditu elkarteak eta berrogeita hamarretik hurbil egon behar du bertan batzarra egin ahal izateko. Egun hartan egindako eguraldi txarra, alde bateatik, eta bertze zenbait ekintzak, bertzetik, behar adina jende biltzea galarazi zuten. Ea joan den larunbateko bilkuraren berri hurrengoan emateko aukera dugun.

Eski kanpaina

Eskolako 3. zikloko 9 haur eski kanpaina parte hartzera joan behar dira heldu den astean. 28an, igandez, Belagua aldera abiatuko dira eta apirilaren 2an dira itzultzeakoak. Isaban hartua dute lo egiteko lekua eta bertatik mugitu



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Aspaldiko elurterik handiena bota zuen otsailaren 29tik martxoaren 1erako gauean. Aitzineko egunetan ere bazuen bizkorki egina, baina, erran bezala, gau horretan herrian hartzen hogeitazentimetrotik goiti bota zituen. Jende anitz gelditu zen etxetik mugitu ezinik, eta bertako eskolako haurrak klaseak izan bazituzten ere, Berara edo bertze lekuetara joan beharrekoek luzatu egin zuten bertze egun batez aste-xuria. Ez zuen aspaldi samar horrelako elurterik botatzen. Urtero seinalea utzi nahi izaten du, baina, hurbilenekoei erreparatuz gero, 1996ko otsailaren 20an bota izanen zuen azkeneko handiena eta gero 1999ko otsailakoa ere dexentea izan zen. Egun gutti batzutarako ez gauza itsusia, baina pixka bat luzatuz gero zenbat ate ixten dituen!!

tuko dira eski pistetara. Arrazoi bat edo bertze zela medio, 1999az geroztik joan gabeak ziren igantziko haurrak eski kanpaina hauetara.

Bertzalde, eskiaren

kontuarekin segituz, hamarren bat herritar –gehienak Toki-Onako ikasleak– joan ziren martxoaren 6an bertako Guraso Elkarteak Pantikosara antolatuta-

ko bidaiara. Eguraldi ederra egokitu zitzairen eta ederki pasatu omen zuten eguna. Horietako batzuk dexente moldatzen omen dira gainera eskiekien.

FLASH



Goraintziak Rwandatik

Dakizuen bezala, hurreman estuak ditu zonaldeko Behar-Bidasoa ONGak, Gobernuz Kanpoko Erakundeak, Rwandako zenbait herrirekin. Hemen bildutako dirulaguntza gehienak bertara zuzentzen ditu aipatutako elkarteak. Dirulaguntzaz gain, inguruan bildutako arropak ere bidaltzen zaizkie, Igantziko Erretorbaitako zentroan moldatutakoak horietako aunitz. Tarteka, laguntza eskertzeko bertan ateratako argazkiak eta goraintziak bidaltzen dituzte. Goian ikusten duzuen argazki horietako bat da, Kayenziako (Rwanda) eskolan ateritakoa. Elkartasuna ongi bideratzen denaren seinale!



Haurrak pailazoak ikusten Baratzondon.

Eskolarteko Topaketa

Martxoaren 10ean Igantzian bildu ziren Bortziarietako hiru herri tikiarietako –Arantza, Etxalar eta Igantzi– eskoletako haurrak. Argazkian ikusten den bezala, Baratzondon Takolo, Pirritx eta Porrotxen saioa ikustertera bildu ziren guztiak. Gozatu ederra hartu zuten bertara joandako guzietan.

B BERBIZUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**

ARANTZA

Lau talde Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartzen ari dira

Ekaitza Elkarteak junta berritu du bi urterako

Nerea ALTZURI

Aurten ere, alferkeririk gabe, herriko gaztetxoek eta entrenatzaileek herri kirol jolasetako txapelketetan izen eman dute. Alebilen, haurren eta kadeteen kategorietan hogeitamar inguru neska mutiko urteroko jardunean, igandean zortzi, Irurtzunen hasi ziren. Joan den igandean berriz, Burlatan bigarren jardunaldia egin zuten. Proba konbinatuan hiru herriko talde lehian ari dira.

Berriozar, Andra Mari eta Iñigo Aritza taldeekin alebin taldea jolasen ari da; Haurren mailako taldeak berriz, Andra Mari, Iñigo Aritza A eta B, Putterri eta Eunate taldeak ditu jardunean; eta Kadeteetan, aranztar taldearekin batera, Andra Mari eta Eunate taldeak ari dira. Urte batzuk badire soka tira talderik ez dela ateratzen txapelketan parte hartzeko. Aurten, Nartekin batera, Nar-



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Felipe Uriarte mendizaleak diapositiba emanaldia eskaini zuen martxoaren 10ean Zahar Txokon, Amerikako zenbait mendi tontorrei buruz.

barte-Arantza kadeteen taldea lanean hasi da 540 kilotan. Heldu den martxoaren 28an goizeko 11etan eta herriko frontoian herri kirol jolasen laugarren jardunaldia izanen da. Apirilaren 4an, Berriozarren izanen den final nagusirako partaideak nortzu izanen diren zehaztuko da orduan. 11 eta 16 urte bitarteko herri-

ko neska mutikoen arteartero eta ortzegunero, arratsaldeko borteetan entrenatzen dute. Pantaleon Errandonea eta Joxe Ramon Amoros entrenatzaile lanean ari dira.

Bertzalde, kirol esparrutik ateri gabe, Ekaitzako pilotari gaztetxoak, Belate eta Zizurko bikotekako eta buruzburuko txapelketetan

parte hartzen ari dira. Honen gainean, hurrengo alean informazioa eman dizuegu. Pilota kontuak utzi eta eskiak hartuko ditugu. Aintzineko ale batean aintzinatutakoa ailegatu zaie eskolako lagunei. Aste Zuriaren programaren barrenean, heldu den martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitarte hirugarren zikloko

Ekaitzako junta berritzea

Ekaitza elkartearen hilabete hasietan junta berritzea egin zuen. Ekaitza elkartearen bazkide guzietan hautatzen dute junta, zerrenda batetik izenak idatziz aukeratuz. Honela geratu da Ekaitzako junta berria: Lehendakaria, Xabi Altzuri; lehendakariordea, Patxi Mutuberria; (hauek biek, postuak txandatzera erabaki zuten bi urtetan); idazkaria, Gabi Goia; diruzaina, Rakel Arozena; Kirol komisioko, Jose Luis Iparragirre, Pantaleon Errandonea eta Teodora Pikabea; bo-degeroak, Dabid Iturria, Kallo Leiza eta Jabi Etxebeste.

Bi urteren buruan berriz ere junta berritzea egingen da.

eta DBHko hamasei ikasle eta irakasle, Bortzerrietako gainerako eskoletako lagunekin eskiatzera joan dira Izabara. Elurretan ibiltzeko eta elurrik izan ezean, bisitaldiak, festak eta bertzelako ekimenak egiteko aukera izanen dute.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik ortziratera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ALBERGIA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditud
Tfnoa: 948 631 342 BERA - Tfnoa: 948 637 172 LESAKA

DONEZTEBE

Sunbilla pareko errotonda berritzea edo argiztatzea eskatu du Doneztebeko Udalak

N-121-A errepideko zati hau «hagitz arriskutsua eta puntu beltza» dela dio

ttipi-ttapa

N-121-A errepidea egunero solasgai dugu gurean. Errepide arriskutsua da bere osotasunean, baina zenbait zatitan arrisku hori hagitz haundia da. Zati arriskutsu horietako bat da Doneztebeko Kontxa gasolindegiko zuzena eta Sunbillara ateratzeko edo norabide aldatzeko errotonda. Hain zuzen ere, Doneztebeko udal batzarrean herriko bikote batek egindako sakaketa aztertu zen. Joan den urteko abenduaren 21ean bikote hau Doneztebe aldera zihoanean, norabidea aldatzeko maniobra eginen ari zen kamioi baten kontra jo zuen. Bikotearen idatziaren arabera, argi batere ez zegoenez, kamioiaren gainean egon arte ezin izan zuten ikusi eta jo egin zuten. Behin istripua gertatu eta gero, kamioiak bere bidea segitu zuen eta Guardia Zibila agertu arte arris-



ARGAZKIA. EDURNE ZUBIETA

Sunbilla pareko errotonda leku arriskutsua da, bi aldetara trafiko astun haundia eta ikuspen murrizta delakoz, ilunabarrean batez ere.

kuan egon omen ziren bai bikotea, baita bere bi semeak eta laguntzera hurbildutako guztiak. Izan ere, argirik ez dagoenez, arriskuko triangulua jartzera ere ezin izan zuten ateri. Bikote honek idatzian dienez, errepide zati hori hagitz arriskutsua da eta bertze gidari batzuk, istripurik izan gabe, arris-

ku egoerak bizi izan dituzte leku berean, kamioien maniobra arriskutsu horren eruz.

ERROTONDA ARGIZTATU EDO BERTZE SOLUZIO BAT BILATZEA

Leku hagitz arriskutsua denez, zati horretan argia jartzeko aukera seriozki aztertzea eta baloratzea eskatu

zieten Udalari, edo bertzenaz bertze soluzio egokiren bat bilatzea.

Udaleko zinegotzi eta alkatearen ustez ere, leku hori puntu beltza da, hagitz arriskutsua, bi norabidetan dabilen ibilgailu kopurua, batez ere kamioiak eta trailerrak, kontuan hartuz. Gainera, Irunetik Iruñerako bi-dean goazela, norabide

aldaketa bihurtzeko eta maldan beheiti gelditzen da eta ikusteko zaila suertatzen da, batez ere ilundu denean. Gainera, zerbitzugunea da, jatetxe, gasolindegia eta ostatuekin eta dagoeneko hainbat istripu gertatu dira, batzuetan heriotza ere eragin dutenak. Horregatik, istripurik ez gertatzeko eta inguru horretan trafikorekin segurtasuna hobetzeko neurri egokiak lehenbailehen hartzea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako Departamentuari. Neurri horien artean, errotonda berri bat eraikitzea edo ingurua argiztatzea aipatu zituzten udal agintariek. Horretaz gain, joan den urteko abenduaren 29an departamentu horri egindako eskaria berretsi zuten alkate-zinegotziek, hau da, errepide nagusitik Donezteberako sarrabideak behar bezala seinalizatzea.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK,
 VENECIANAK... PVCzko **LEIHO ETA ITXITURAK**

ZOANSA

SALMENTA
 MARKA GUZTIEN KONPONKETA
 Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05
 Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
 (Sarrera Beratik)

SUNBILLA

Eski alpino eta mendiko eski ikastaroak antolatu ditu Illurdi mendi taldeak

Udaberri eta uda osoan hainbat ateraldi egingen dituzte

ttipi-ttapa

Ulibeltzak elkartearen mendi sailak, Illurdi mendi taldeak Xabierre Bardeetatik joateko ehun kilometroko ibilbidea egin zuen martxo lehen aste honddarrean. Urte hasieratik bertze hainbat ibilaldi egin ditu, Mendaur, Petretxema, Auza, Pico de los Monges, Saioa, Quimboa Alto eta Aiako Harrietara, bertzeak bertze.

Martxoan bi ikastaro ere antolatu ditu Illurdi taldeak. Martxoaren 20 eta 21ean eski alpino ikastaroa egingen da maila guzientzat eta martxoaren 27 eta 28an mendiko eski ikastaroa maila hagitza ona dute-nentzat. Hortik aitzine-ra ere hainbat ateraldi prestatu ditu Sunbillako mendi taldeak. Apirilko lehen aste honddarrean, larunbat eta igandez, Hiru Erregeen ma-haia eta Ani igoko dituzte, prestakuntza ona behar duten ateraldietan. Apirilaren 18an eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Illurdi mendi taldeko kide batzuk, mendira egindako ateraldi batean.

25ean hurbilean geldituko dira, Atxuriara eta Iparlara joanen baitira. Maiatzaren 1ean bertze eski ateraldia egingen dute, mendiko eskia egingen baitute Collaradan. Berriz ere prestakuntza arrunta behar duten mendi ateraldietara itzuliz, maiatzaren 16an Ekaitzara joanen dira, maiatzaren 23an Larun-

lbardin ibilbidea egingen dute, maiatzaren 30ean Bidasoa aldeko Sunbillako muga egingen dute, ekainaren 6an Mendaurrera joanen dira trinitate egunean, ekainaren 13an Beriainera joanen dira, ekainaren 19 eta 20an, Sunbillan bertan eskalada eta rapela egingen dute eta ekainaren 27an Sunbi-

lla-Basakabi ibilaldia egingen dute. Uztailean sartuta, berriz ere ibilaldi luzeagoetara joko dute Illurdikoek. Uztailaren 10 eta 11n 2807 metro dituen Midi D'Ossaura joanen dira, prestakuntza ona behar duen ateraldian. Uztailaren 15etik 18ra, ortzegunetik igandera, Plato de Belle-La Serrera ibilbi-

dea egingen dute. 2.913 metrora ailegatzen baldin bada ere, ez da prestakuntza berezirik behar ibilaldi hau egiteko. Uztailaren 25ean, Abar-tan-Saioa-Venta Quemada ibilbidea egingen dute prestakuntza ona behar duen txangoan. Era berean, prestakuntza ona behar da abuztuaren 16tik 18ra, astelehenetik asteazkenera Belagoan egingen duten ibilaldirako eta abuztuaren 19tik 21era, ortzegunetik larunbatera, Hechon barna egingen dutenarentzako. Denboraldia akitzeko, irailaren 17tik 19ra, hagitza prestakuntza ona behar duen ateraldia egingen dute Petit Vignemale eta Vignemalera. Behin denboraldia akituta, nahi duenak Behobia-Donostia lasterketarako prestakuntza egiteko aukera izanen du. Ibilaldi guzti hauetan parte hartzeko, guttienez astebete lehenago 619 419364 telefonora deitu behar da.

616 513 491
Pitti
 ESKABAZIOAK
 C/Amadia
 30100 DUNEZTEBE (NAFARRA)

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

LESACA

GIZARTEA

«Plan+familia» egitasmoa sortu du Familia Ugarien Federazioak

Familia hauen ongi izatea eta bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin

Nerea MARTIARENA

Espainiako familia ugarien federazioak "Plan+familia" izena duen egitasmoa sortu du. Federazio honek, sektore desberdinetako enpresen eta Lan eta Gizarte gaietako ministerioaren laguntzarekin mamitu du egitasmoa. "Plan+familia" egitasmoak, familia ugarien ongizatea eta bizitza kalitatea hobetzea du helburu. Horregatik, egitasmoakin, familia ugarietara erraztasunak emateko, enpresa batzuek abantaila handiak es-



kaintzeko prest dituzte.

Hala, Espainiako 21 enpresa garrantzitsuk parte hartzen dute egitasmoan. Iberdrola, BBVA, Telefonica Moviles, Fiat, Uni2, Halcon Viajes Terra Aegon Salud eta Masbebes dira en-

presa hauetako batzu.

Egitasmoak, ikuspegi ekonomikotik aurrezteko erreztasunak ematen ditu, eta bestalde, ikuspegi sozialetik ere familia eta lana koordintzeko laguntzak eskaintzen ditu.

Egitasmoak eskaintzen dituen abantailak lortzeko, familia ugaria dela frogatu besterik ez da egin behar.

Gai honi buruz lanean ari da familia ugaria duen Txaro Jimenez le-sakarra. Nafarroan plana oraindik aurkeztu ez bada ere, familia ugariak bildu behar direla eta informatu behar direla esplikatu digu Txaro Jimenezek.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Txaro Jimenez: 630781950 edo 902302332 (dohainik da).

LEITZALDEA

Bai Euskarari akordioa bultzatzeko lan deialdia

Leitzaldeko Bai Euskarari Akordioaren jarraipen batzordeak bi langile hartuko ditu, bat Leitza eta Aresorako eta bestea Goizueta eta Aranorako. Bi hilabete terdiko kontratua izanen dute, apirilaren erditik ekainaren bukaera arte. Leitza-Aresoko langileak astean 30 orduko lanaldia izanen du eta Goizueta-Aranokoak 10 ordukoa. Langileen eginkizuna, herri horietako gizarte eragileei (elkarte, erakunde, enpresa, komertzio...) Bai Euskarari Akordioa aurkeztea eta konpromisoen fasea lantzea izanen da. Izen ematea martxoaren 12tik apirilaren 2a arte zabalik dago Goizueta, Arano, Areso eta Leitzako Euskara Zerbitzuan (948 510814 edo leitzalde@euskalnet.net) Langilea hautatzeko proba apirilaren 6an egingen da.



BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06




Arki Lanak SL

ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitekto
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitekto Tekniko

SANTIAGO 55, 2. B • 31700 ELIZONDO NAFARROA
TEL. 948 581 931 - 629 50 31 25
FAX. 948 581 854
EMAIL: arantxaci@terra.es

ZUBIONDO JATETXEA



m bentamiguel
detalla, jantziak eta oharak

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

Talokak
Jantziak
Jantziak
Urdaitzak

Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

LEITZA



Martxoaren 8a

Egun hau dela eta, ezer gutxi egin bada ere, emakume talde bat (zazpi gutzira) azkeneko urtetan bezala, Donostiara hurbildu zen Lilatonen (5 kilometroko lasterketa) parte hartzera. Ederki egin zuten gainera. Lasterketaz ari garenez esan, aurrerago herriko krosa martxoaren 28an izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beloki eta Narbarte, finala hasi baino lehen.

Aurrerako pilotari gaztetxoak txapeldun

Euskal Herriko klub arteko txapelketa irabazi zuten Narbarte goizuetarrak eta Beloki leitzarrak

Mikel ILLARREGI

Euskal Herriko Klub arteko pilota txapelketaren finala jokatu zen martxoaren 5ean Goizuetan. Kadete mailan, txapeldunak, Aurrera Kirol Elkarteko Jon Narbarte (goizuetarra) eta Zuhaitz Beloki (leitzarra) izan ziren. Aurrerakaria Elorrioko Berriotsa taldea izan zen. Pilotariak, 22-14 irabazi ondoren, txapela eta domina eskuratu zuten eta Aurrera Elkarteko trofeo. Andres Aranburu, Pilota Eskolako lehen-dakari berriak txapelketako kopa jaso zuen.

IV. txapelketa hau, Euskadiko Federazioak eta Belate Elkartek antolatzen dute. Era berean, Udalbiltzaren babesa jasotzen du.

Mendi irteera

Otsailaren amaieran egin beharreko mendi irteerak, bai umeena larunbatean, bai igandean helduekin, bertan behera geratu ziren elurrengatik. Hile honetan ez da irteerarik eginen, apirilko lehen asteburuan baizik.

Sahara

Saharako herriari Elkartasun taldeak herrialde horretako haurrak hartzeko deia egin du. Izen ematea martxoaren 21 arte Astiz eta Maimur liburudendetan.

Haurtzaindegia

2002 eta 2003an sortutako haurrak haurtzaindegian izen emateko epea martxoaren 26an bukatuko da.

BIZIBIDE HOBEAGO BATEN BILA (2)



Andres SAENZ MIGUEL (Errioxa)

Bizibide berri baten bila ez, baina duela hogeita hamar bat urte, orduan zuten bizibidea eta guzti herri honetara hurbildu ziren orain hemen bertan bizi den bat baino gehiago. Horrelako egoera izan zen Andres Saenz Miguelek bizi izan zuena. Duela 33 urte, Cabezón de Cameros (Errioxa) herrian jaiotakoa, Telefoniarako lana zela medio, honuntz etorri zen. Dena den, gaztetatik ezagutu izan zuen Euskal Herria. Bilbon, maestria ikasi eta pentsioa pagatzeko, soldadore lanak egin zituen lehenbizi. Ondoren Astilleros-en bitartez Ga-

lizarra joan zen. Gero, Altsasu eta azkenean Leitza. Hona etorri zenean, telefonoaren linea orokorretik etxetara ekartzen zuten kablea. «Telefono pila bat jarri zen orduan Leitza» esaten du garai haiek gogoratuz. Orain bere emaztea den Kati ezagutu «eta fabrikari lana eskatzea» erabaki zuen. Altsasun lanean ari zela fabrikatik deitu zuten eta orain arte. «Orduan oso erraza izaten zen lana aurkitzea» esaten du, hau gehituz; «egia esanda, tarteka herrira joan izan banaiz ere, ez dut deus ere faltan bota, behin ere, gainera». Hiru izan ziren bere lan-koadrilatik hemen ge-

ratu zirenak. «Erraz sartu ginen herrian eta herriko giroan. Hala ere, hobeto moldatzen ginen neskekin mutilekin baino». Euskara dela eta, sekulan ez du arazorik izan. Gainera gau-eskolan bi urtez ere euskara ikasten aritu zen, baina nonbait kostatzen zitzaion. Dena den, nahiz eta hitz egitera ez ausartu, ulertu, ongi ulertzen du. Bere bi alabak ikastolara bidali zituzten eta sei urte zituztela, ohartu ziren, aitzak nahi bezala ez zuela euskaraz hitz egiten. Garai haiek oraingoekin alderatuz, «beste herriekin konparatuz, hemen zonalde honetan, hobeki bizitzen zen. Hala ere, hemen ere, giroa erabat aldatu da. Bizimodu aldatu da. Orain kanpotik datozenak, oso zaila dute, askoz ere lan gutxiago dago». Bere alabek lan egitera kanpora joatea erabaki behar harko balute, berak «ez joateko esanen nieke, hemen bezala inon ez direla bizi ahal izanen. Gainera, orohar, neskek, mutilek baino zailago dute».

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

Batxilergoetan eskaintza OSOA

LEKAROZ: ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ **BATXILERGOA**

- Zientzia eta teknologia
 - Zientzia eta Ingeniaritza
 - Osasun Zientziak
 - Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
 - Humanitateak
 - Gizarte Zientziak

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

ELIZONDO: ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ **Lanbide Sarrerako Programa Berezia**
Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ **Lanbide Sarrerako Programak**

- Bulego eta Saltoki Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa**

- Administrazioa eta Finantzak







2004
udaberri
udako

moda

gehigarria





2004 udaberri

HAUR ETA GAZTETXOAK

ARRIET
Lauri eta gogoratzen arropakonda

0-19 urte
artekoentzat

Legia 45 • BERA
Tfnoa: 948 630 550



FANTXIKE

Mertzeria • Opariak • Lentzeria
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Jaime Urrutia 15, ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 312



Ibarrola
Haurrendako arropa 0-14 urte

Parrokia 6, DONEZTEBE • Tfnoa: 948 45 04 63

KAPRITXO LEITZA

Landa industrialdea • Tfnoa: 948 510 994




Ines Matxiarena (ARRIET-BERA)

Haurrei gero eta gehiago gustatzen zaie helduak bezala jantzi eta moda jarraitzea. Jantzi eroso eta koloretsuak dira udaberri eta uda honetarako eskaintzaren ardatza. Kotoi eta harizko arropa praktikoak izanen ditugu aurtengoan etxeko ttikienentzat. Koloreari dagokionez, laranja, gorriak eta lurrak nagusitzen dira. Nagusiki, mutilentzat pirata itsurako patrikadun galtza zabalak ikusiko dira eta irudi etnikoak dituzten arropak neskentzat. Jaio berrientzat ere soineko klasikoez gain moda modako arropak aurkitu daitezke: tiradun soinekoak, galtza zabalak... Kolore xuabeak eta oihal oso naturalak izango dira nagusituko direnak, beti ere arropa eroso eta estilodun izanik.

“Arropa eroso,
praktikoa eta
alaia izanen da”





erri udako

GAZTEAK

Marian Urrea (MARTUTZAK-BERA)



“Inoiz baino kolore gehiago”

Udaberriaren etorrerarekin, aurtan saltokietako erakusleihoak kolorez beteko dira. Inoiz baino gehiago, udaberri koloretsua izanen da. “Zer jantziko da udaberrian?” galderari erantzuteko aukera bat baino gehiago dago. Tendentziak daude, kolore jakin batzuen goraiatzea dago...baina azken batean norberak bere estiloa hautatu eta sortzen du, kolore eta arropen konbinazioa medio. Konbinazioan dago beraz gako. Kolore biziak nagusituko dira udaberrian; berdea, horia, arrosa, laran-

ja, urdina eta gorria besteak beste. Kolore bereko kapak gain ezartzen dira, degradea osatu eta azken batean hiru dimentsioko efektua lortzen da. Arropa berean, koloreak konbinatzen dira ostadarraren moduan, jantzi guzian edo kamiseta zein txaketen ertzetan.

Kolore anitzeko kamiseta marradunak izanen ditugu. Arrosa koloreak garrantzi berezia izanen du. Hala, arrosa koloreak, tonu eta ideia gehien eskainiko ditu bai arropetan, bai zapata zein osagarrietan. Askotan gorriarekin nahastuko da, emaitza ikusgarria lortuz.

Zuria eta beltza: elkarrekin edo bereiztuta. Zuria bakarrik erabiltzen bada argitasuna eta itxurarentzat onuragarria izanen da. Zuria eta beltza estilo askorekin konbinatzen dira, zuria nahi den gorputzaren atala nabarmentzeko eta beltza aldiz, izkutatzeke erabiltzen da. Estanpatu geometrikoetan asko ikusiko da zuria eta beltzaren arteko konbinazioa.

Urre koloreak, edo bakarrik erabiltza edo zuriarekin nahasita, oso emaitza erakargarria lortzen du. Ehun errustikoekin nahasiko da urre kolorea. Ehun errustikoetan, lihoa, koitoizko ehuna, beste etnietatik hartutako ehunak besteak beste izanen ditugu.

Brilloak eta harriak zein saten ehuna, arropa dotoretan eta bestetarako arropetan ikusiko ditugu eta bakeroa zein kirolerako zapatillekin nahasiko dira kontrastea lortzeko. Lentzeria estiloko arropa ere erabiliko da, 50.hamarkadako janzkera gogoratuko diguna.

Gerrian arrimatutako top-ak, kortse antzekoak, bakarrik edo kamiseta baten gainetik jarriko dira, eta

EZKONTZETAKO JANTZIAK

Marka bereziak:

- Giovani Valdi
- Sandro Sellini
- Caramelo Gala

MERCHE MODA HOMBRE

Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • Tfnoa: 943 61 26 26

ANDRES SARDA

Marienue LENCERIA

Parroquia 11, DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 01 12

HONORIO TABERNA

Gizaseme eta Emakumeendako Boutique

Tfnoa: 948 450 108
Merkatarian karrika 29
DONEZTEBE



Martzutzak

estilodun arropa eta osagarriak




Eztegara pasealekua 12 • BERA



Gazteendako moda

SINA



Albistur 3,
behea
© 948 637951
LESAKA

DIESEL
TRENDAKONFIZIOAK

JUAN J. PIKABEA

Arropa konfekzioak
Senargalantzako trajeak
Gizonendako jostugintza
Egindako trajetan
aukera zabala
Galtzak 70 neurria bitarte
Atorrak 54 neurria bitarte
Jertsoak ere taila handiak

Amezia z/g.
DONEZTEBE
948 451 670

Belzunequi
DESDE 1988

Jaiate Litueta 44 ELIZONDO - Tlf: 948 581 594

gona zabalekin konbinatuko dira. Estanpatuak nagusitzen dira; geometrikoak, loreak edo komikiak, arropa, top eta galtzetan ikusiko dira. Loreek izanen dute garrantzi handiena.

Tendentzia aipagarriena udaberri-uda denboraldian, garai desberdinetako arropen nahasketa izanen da. Estanpatu eta ehunak hiri handietako azoketan aurkitzen direnen estilokoak izanen dira. Koloreak eta ehunak gain ezartzen dira. Marra-dun estanpatuak loreekin edo irudi geometrikoekin anarkikoki nahastetzen dira, eta estanpatu desberdinak eramanen dira kamisetan edo atorrak eta gona edo galtzetan. Luxuzko ehunak errustikoekin nahastuko dira, luzera desberdina duten arropak gain ezarriko dira eta kolore elektrikoa duten gerrikoak jantziko dira.

Gona motzak galtzen gaintik jantziak, gasa-ehuneko arropa lorez apainduak eta kotoizko kamiseten gaintik jantziak ikusiko ditugu. Asimetriak eta arroparen mozketak desberdinek gorputza nabarmenduko dute.

la dena nahastean da, betiere ehunen kontrastea eta efektu kromatikoa kontutan hartuz. Uda honetan denon gusturako gonak aurkituko ditugu: miniak, belaureraino iristen direnak, luzeak, bolantedunak, bake-rozkoak, gasa-ehunezkoak, lihozkoak eta kotoizkoak.

Kolore eta ehun desberdinetako galtza piratak ere asko ikusiko dira. Galtza bakero luzeak zein pirata moduan eramanen dira, kolorezko josturak kanpo aldera tolestuz edo luzeak diren galtzak behelaldean moztuz. Hala, sandaliak nabarmenduko dira, hauek, lisoak eta leunak izanen dira. Bestalde, bailarina antzeko zapatak edo kirola egiteko zapatilla koloretsuak erabiliko dira.

Koloreek alaitasuna eta optimismoa ekartzen dutela esaten da, beraz denboraldi ona datorkigula pentsa genezake.

Eguraldiaren laguntza besterik ez dugu behar!



«Tendentzia aipagarria
garai desberdinetako»

OSAGARRIAK Bisuteria, boltsoak, zapiak eta gerrikoak.

Osagarriek ikutu berezia ematen dute. Denboraldi honetan ugariak dira eta asko ikusten dira, tamaina haundikoak eta kolore aunitzetakoak erabiliko direlako. Diseinuak oso originalak dira. Belarritakoak, esku-muturrekoak, lepokoak eta eraztunak kolorez jantziko dira. Bolatxoak dituzten eta pasta antzeko materialaz egindako piezak ikusgarriak dira (arroxak, horiak, berdeak, turkesak...). Kolorezko metalan egin-



dakoak baina haundiak batez ere. Txuria eta beltza, bakoitza bere aldetik edo nahasiz datoz, hala ere txuria izanen da nagusi. Luzera desberdinetako lepokoetan fantasia nabarmenduko da eta Chanelen perlazko lepoko klasetan inspiratzen dira. Lepoko hauekin hari finezko belarritakoak ikusiko dira, puntan perla bat daukatena. Kolorezko esmalteak zilarra eta bertze metalekin nahasiko dira. Medalo haundiak kate luzeekin eta larru edo zeta sokekin lepora itsatsitako pieza txikiagoak. Belarritako haundiak eskumuturrekin konbinatuta. Swaroski kristala indarrean jarraitzen du kolorea eta dizdira emanaz. Boltsoei dagoekionez, erratekoa da hauek ere oso haundiak izanen direla. Lore, komik irudi eta irudi geometrikoekin estanpatuak. Erabiltzen diren materialak betzeak bertze, loneta, sarea (erosketarako poltsa antzekoak), larrua eta retroagoa den txarola dira, beti ere kolore biziekin (arroxak, turkesak, etab.). Okasio berezi eta besta egunetarako, boltso ttiki flekodunak (20. hamarkadan oinarrituz) edo eskumu-

turrekoa bailira eramateko heldu leku originalekin. Gerrikoa aunitz erabiltzen jarraituko da, apaingarri bakkarik edo galtzak, gonak edo soinekoak kontzeko. Aldakara beharrean gerrira doan gerrikoa gero eta gehiago ikusiko da, larruzkoak, ohialezkoak, hard-rock itsurakoak... Zapiak oihal arinetan datoz (zeta, kotoia, linua...), estanpatu xuabee-kin nahiz kolore bakarrean arropa estanpatuarekin eramateko. Ehunak nahasten dira. Lepoan lotutako zapiak eramaten da, fular itsurako zapiak, oso pegatua baina zintzilikatzen diren puntekin. Estilo honetako zapiak soinekoekin agitz ongi konbinatzen dute.



riena udaberri-uda denboraldian,
o arropen nahasketa izanen da»



MODA PREMAMA
Serapio Mujika, 14
© 943 615886
20302 IRUN



HAURDUN ZAUDE?
*Zatoz! eder jartzeko
behar duzun guztia daukaugu*

IPINGI
tenporadako arropetan aukera zabala!
Eskuzatutako arropa berezia
• Bitakeriak
• Konplementoak
Santiago 88 • Elizondo
Tfnoa: 948 580 939



Arleda M.
Lentzeria Mertzzeria
Kanttonberri 2, BERA • Tfnoa: 948 625 411



OINETAKOAK

Adela Arlegi (KALOTKA-BERA)



" Aurten modelo, forma eta kolore aukerak"

Dagoeneko aurtengo udaberri-uda denboraldia hastear dago eta kolore eztanda haundia datorrela aipatzekoa da.

Haurrak

Haurrei dagokienez, pistatxo, laranja, turkesa, urdina, gorria, beige eta txuria nabarmenduko dira koloretan. Oinetako itxi eta irekiak eramanen dira, larruzkoak beti ere eta haurraren oinaren formara ongi egokitzen direnak.

Neska eta mutilak

Neska eta mutilentzako sandalia aunitz ikusiko da.

Emakumeak

Emakumezkoen kasuan aukera desberdinak daude. Zapata eroso eta malgua aurkitu daiteke, eguneko 24 orduetan erabiltzeko modukoak. Zola fina eta larru biguna izateko joera ere badago eta koloreei dagokienez, batez ere beige, txuria, gorria, urdina eta marroi iluna eramanen dira.



PELUAGA

Moda eta osagarriak

Colon Pasealekua 7 • 20302 IRUN
Tel-Fax: 943 622816

PERIFERIA
URBAN JUNGLES



ZAPATADENDA

Parrokia, 17 • DONEZTEBE
948 450 289





aukera zabala iza-

ra. Sandaliak oso irekiak izanen dira, harri, aro eta hebilla bezalako apaingarriekin. Gaztelaraz esclava, merceditas eta bailarina bezala ezagutzen diren oinetakoak ikusiko dira erakus lehioetan, zilar edo urre kolorean, kolore biziak ahaztu gabe.

Zapata dotoreagoa bilatzen badugu, forma oso berexiko takoiak aurkituko ditugu, ez oso altuak eta oinarentzako erosoak. Takoiaren formara egokituko diren punta finak ikusiko ditugu oraindik eta egunero ibiltzeko oinetakoetan baino apaingarri gutxigo eta txikiagoak izanen dituzte. Oina zabala dutentzat, zabalera berexia duten sandaliak badaude, moda eta erosotasuna elkar lotzen duen larru trentzatuarekin eginak. Bertzalde, uda honetan espartzu zola duten oinetako koloretsuak ez dira faltako.

Gizonak

Gizonezkoen kasuan oinetakoen malgutasuna izanen da ezaugarri nabarmenena eta oinetako irekien alde apostua egingen da. Kirol oinetakoetan zola oso finak ikusiko dira, eskaladan erabiltzen diren horien itxuran oinarritzen direnak.

Osagarriak

Osagarri dagoekienez, pasmina eta zapi koloretsu haundi nahiz txikiak aurkituko ditugu, 60. hamarkadako kutsua duten irudi eta marrekin. Hondartzarako zapiak eta apaingarri asko duten gerrikoak. Gerriko arruntenek ere hebilla deigarriak izanen dituzte.

Boltsoak ere forma geometrikokoak dira eta oinetakoen kasuan bezala, hebilla eta aroekin apaindutakoak. Kolore txuria asko ikusiko dugu denboraldi honetan, beige, gorria eta beltzarekin batera. Neurri desberdineko boltsoak, eskuan eramaten direnak eta sorbaldan eramatekoak helduleku motzarekin. Hala ere, ez ahaztu modelo klasikoentzako lekua badagoela.


Laburbilduz, aurten modelo, forma eta kolore aukera zabala izanen dugula erran daiteke, edozein okasiotan konbinatzeko erraxak. Guztion gustuak eta beharrak asetzeko osagarriak ere aurkituko ditugu. Erosotasuna eta moda elkarrekin doaz.

Zapatadenda.
Kalotxa.
Osagarriak.
Konponketak.

Lanbete 47 Berriz 31700 Nafarroa 948 637 594

KICKERS KICKERS KICKERS

KICKERS KICKERS KICKERS



ZAPATADENDA
Arretxea 20, behea • LESAKA • 948 637 594

moda
moda
moda
moda

Osasuna

osasan gida · osasan gida · osasan gida

- >>>>> Optikak
- >>>>> Hartz klinikak
- >>>>> Naturopatak
- >>>>> Fisioterapeutak



Albiu hertz klinikak
Iker Albiu Altolagirre
Odontologia Medikua - Kol. Zela 448

Ordu eskaera

9:00 - 13:00	15:00 - 19:30
--------------	---------------

☎ 948 631 631
Iparraldea 3 - 2.ezk 31780 Bera

Clinica Dental

Irurita - Rubio
ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA

Dr. Jose Luis Irurita (Kol.240)
Dra. Biotza Rubio (Kol.241)
odontologia medikuak

Rx.panoramikoa - periodontzia - kirurgia
endodontzia - protesiak
ODONTOPEDIATRIA - PADI
ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Doneztebe 948 450 267
Rosa Seminario, 19 - 1.Esk

Leitza 948 610 713
Manuel Lasarte, 7 - 2 Esk



BELARDENDA
Naturista kontsulta
Masajista

Larrea 1, beheko · BERA
Tfnoa: 948 630 652



FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
FISIOTERAPEUTA

- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio Masaia
- Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
- Etkez etxeko laguntza
 - Mutuak
 - Aseguruak
 - Partikularrak

Huete Gotzale 8, 3.C · LEITZA · Tfnoa: 948 510 730

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta

Eztegara, 24 · BERA
Parrokia, 5 · DONEZTEBE
Tfnoa: 670 471 200



Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentillen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urtetatik aurrera haurren errebisioa

Bidasoa 8 · BERA · Tfnoa: 948 630 753



osasan gida · osasan gida · osasan gida

Zure publizitatea hilabetez behin sartzeko deitu
948 63 11 88
telefonora
kulturkari@euskalnet.net

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetes • Asma • Zizareak • Larri azaleko alergia
Buruko mina • Oinaren izardio • Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA	GIHARRE ARAZOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Miopia • Bista alfertua • Estrabismoak • Begi lausoak-kataraktak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkortzea • Artritis, erreuma • Artritis, lumbalgia • Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldean 2-7etara, Ordua eskatu

☎ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **6 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 25.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pista, zalditegia,...
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



I.E.S. LEKAROS ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROS

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROS (Baztan)
☎ 948 58 18 03
☎ 948 58 18 36
✉ Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
☎ 948 58 18 40
✉ Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es

Izen ematea:

- ◆ **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:** 2004ko martxoaren 22tik 26ra.
- ◆ **Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa** 2004ko apirilaren 22tik maiatzaren 7ra.
- ◆ **Goi Mailako Lanbide Heziketa** 2004ko ekainaren 1etik 11ra

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

GOIZUETA



ARGAZKIA: GORETTI TELLETXEA

Herriko pilotari kadeteak ere Euskal Herri guziko onenetakoak edo hoberenak direla erakutsi dute berriz. Herrian bertan jokatutako martxoaren 5ean klubaren arteko kadete mailako Euskal Herriko finalak, eta Jon Apezetxea buruz burukoan eta Jon Narbarte Beloki leitzarrarekin bikotetakoan erraz nagusitu ziren. Harmailetako giro ederrak borobildu zuen pilota festa hau.



ARGAZKIA: TTUPI-TTAPA

Honela xeko itxura hartu zuen herriko plazak martxoaren 7ko eguerdian. Herritar asko izutu ere egin zen larrialdiren bat izan zelakoan, baina zorionez ez zen horrelakorik. Ainara Armentariz ezker abertzaleko kideak eman beharreko hitzalditxoak izan zen guardia zibilen hamaika patrol mugiarazi zituen larrialdia.

«Txino» auzoko festa antolatu da martxoaren 27rako

Gazte Asanbladak egitarau ederra prestatu du

Esteban AROTZENA

Ofizialki Sancti Espiritu izena duen eta herritar guztiek Txino izenaz ezagutzen duten au-

zoak bere festa egun propioa izanen du aurtentzen, hil honen 27ko larunbatean, hain zuzen. Azkeneko urte hauetan

herriko erakunde ezberdinek askotan izan ohi dute mintzagai auzo eder horretako festak antolatu nahia. Az-

kenean Gazte Asanblada izan da hitzetatik ekintzetara igaro dena, aipatutako egunerako egitarau polit askoa antolatuz gainera. Festari hasiera emanen dion itxaferoa 12:00etan botako da eta buruhandiak eta erraldoiak kaleratuko dira ondoren; 14:30etan herri bazkaria egingen da Irisarriko frontoian; bazkal ondoren, bertako gazteen ar-

teko lehia herri kirol jaialdian; ilunabarrean trikitipoteoa; eta gaueko 12:00etan Deus rock taldearen herriko debuta; Leire eta Itsasoren berbenak emanen dio bukaera Txinoko festaren lehenengo edizioari. Lerro hauek idazterakoan oraindik ordutegia zehaztu gabe zegoen arren, umeentzat jokoak eta bertsolariak ere izanen dira.

ARANO

Kontzejuko taberna inauguratu da elurtearen erdian

Hiru hilabeteren ondotik Gure Ametsa ere ireki da

Kontxi KLABER

Otsailaren 28an ireki zuten herriko etxeko taberna. Sekulako elurra egon arren jende asko inguratu zen bertara. Bi urte bete zituen urtarrilean herriko tabernak itxita.

Orain 5 urteko kontratuarekin ireki dute Lola eta bere senarra Imanolak. Oreretatik etorri dira eta oso pozik hasi

dira, beraien ustean beretan asmatu dute lekuarekin. Herriko tabernak beti babarrunak eta bertako janaria eskaini du, baina Lolak hortaz aparte beste janari mota eskaintzeko asmoa du, indiarra, marrokoarra...

Ez da taberna bakarrik berritu dena, udal etxe osoa konpondu da, lehenengo pisuan uda-

la, bigarrenetan tabernarekin batera alokatzen den etxebizitza eta azkenik ganbara dago eta honerik ahalik eta etekin gehien ateratzeko asmoa da. Adibidez herriko emakumeak gimnasia egiten hasi dira.

San Rokeko bazkideen bilera

Otsailaren 28an egin zen San Roke elkarte-



ARGAZKIA: KONTXI

Kontzejuko tabernaren inauguraziora hainbat herritar hurbildu zen.

ko bazkideen bilera. 61 bazkideetatik 35 bat inguratu ziren, izan ere elurarekin ez zen erraza bertara igotzea. Ondoren bertan afaldu zuten, zuzendaritzakoak prestatutako afaria.

Gure ametsa taberna ireki da

Hiru hilabete itxita pasatu ondoren, martxoaren 8an ireki zuen Aurorak. Jendeari luze egin zaizkio hilabete hauek izan ere triste gelditzen da herria ezer gabe, baina orain errondak egiteko moduan dira herritarrek.

INGURUMENA

Izokin eta amoarrain arrantza denboraldia igandean irekiko da

Lehendabiziko izokina bakarrik komertzializatzen ahal da



tipi-ttapa

Azken urteetan bezalaxe, martxoko hiru garren igandean, aurtun martxoaren 21ean, irekiko da amoarrain eta izokin arrantza denboraldia eta uztailearen 31 arte zabalik izanen da. Martxoan eta apirillean 7:00etatik 21:00etara egiten ahal da arrantza; maiatza, ekaina eta uztailean 6:30etatik arratseko 22:00etara. Besta egun ez diren astearte eta ortzegunetan ezin izanen da arrantzarik egin. Beraz, hila-bete murriztu da denboraldia eta astean bitan debekatua egonen da arrantza. Neurri hauekin amoarrain kopurua haunditu nahi da. Arrantzale bakoitzak gehienez hiru amoarrain hartzen ahal ditu egunean, guttienez 23 cm.-koak erreka haundietan eta 20 cmkoak ttikietan.

Izokinaren kasuan, denboraldia 75. alea arrantzatzen denean akautuko da. Ingurumen Departamenduak baimena emanen balu, ehun izokineta igozten ahal da kopuru hori. Uztailearen 18an gehienezko kopurura ailegatuko ez balitz, egun horretan itxiko da denboraldia. Epe horretatik kanpo, erabat debekatua dago arrantza egitea.

Aipatzekoa da, denboraldiko lehen izokina bakarrik komertzializatu ahal izanen dela, gainerakoak ez. Amoarrainak ere ezin izanen dira komertzializatu.

Ez utzi airean
Rural Kutxak argituko du PAC-a zure ordez

PAC 2004

Gure profesionalak egingen dizute 2004ko PAC deklarazioa baldintzarik hoberenetan, eta ez duzu ibili beharko paper-multzoarekin alde batera eta bestera.

Ez utzi airean eta joan zaitetz zure Rural Kutxako bulegora. Irabazian aterako zara.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

BAZTAN

Oilar Jokoaren kontra salaketa jarri du Animalien Babeserako Elkartek

Elizondoko hiru ikastetxe eta bi kargodun ere aipatzen ditu salaketak

ttipi-ttapa

Animalien Babes eta Ongizaterako Espainiako Elkartek salaketa berretsi du Nafarroako Gobernuo Ingurumen Departamentuan, eta hasieran bakarrik San Fco. Javier ikastetxea aipatzen bazuen ere, orain Baztan Ikastola, Lekaroz-Elizondo Institutua, "Elizondoko Udala" eta M^a Cruz Goñi eta Irantzu Izeta kargodunak aipatzen ditu salaketan. Salatzaileak arazoitzen duenez, Oilar Jokoaren bestan ez da betetzen Animalien Babeserako Foru Legea. Lege horren arabera, animaliek ezin dute ospakizun eta ikuskizunetan parte hartu eta ezin dira sarizat eman.

Berez, herrietako alkateak dira ekitaldia antolatzen dutenak, baina Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeari jarri diote salaketa. Ikastetxeko irakasleen klaustroa eta Guraso Elkartea martxoaren 1ean bildu ziren, ohar bat ar-



ARTXIBOKOA

Anizko haurrak oilar jokoan, duela hamar bat urte ateratako argazkian.

gitaratzeko. Isabel Ibarrola zuzendariak jakinarazi zuenez, oraindik ez dute salaketa hartu eta komunikabideetan agertutakoa bertzerik ez dakite. Halere garbi du beraiek ez direla jokua-aren arduradunak, Baztango besta tradizionala baita, herri guzietan ospatzen dena eta alkateek antolatzen dutena. «Elizondoko kasuan, gure eskolako ikaslee-

kin batera, Baztan Ikastola eta Lekarozko Institutuko DBHko Lehen Zikloko ikasleek parte hartzen dute». Ikastetxeetako ikasleek parte hartu bertzerik ez omen dute egiten. Isabel Ibarrolak jakinarazi duenez, agertu diren datuak ez dira zuzenak eta edozein salaketa egin aitzinetik ongi informatu behar dela azpimarratu du. Ikasleei natura zaintze-

ra eta animaliak errespetatzera erakusten dietela ere aipatu du San Fco. Javier ikastetxeko zuzendariak. Guraso eta irakasleek adostutako idatzian ageri denez, Animalien Babeserako Elkartaren helburuak eta intentzioak baloratzea sartu gabe, errespetatu egiten dituzte. Halere, besta honen arduradun ez den ikastetxearen irudiari kalte egin

diola eta, elkarteak zuzenketa publikoa egitea eskatu dute.

Bertze aldetik, Santi Ibargarai Erratzuko alkateak erran duenez, afera Junta Generalera eramanen du, behar duen erantzuna emateko. Bere ustez, «salaketa jarri duen erakundearen helburuak zuzenak izan daitezke, baina oraingon ez du informazio egokirik».



PERTSONAIA

Anabel SOBRINO

San Francisco Javier eskolako ikaslea Iñigo Arista lehiaketan saritua

Anabel Sobrino, Elizondoko San Fco. Javier Ikastetxe Publikoko ikaslea Iñigo Arista kultur erakundeak antolatzen duen lehiaketan sari bat lortu zuen. Anabelek idazlan bat aurkeztu zuen, txango batean ikusi eta ikasi zuena euskaraz idatziz. Saria, argazki kamara eta bideo zinta, Nafarroako Jauregian jaso zuen, gurasoek lagunduta.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako haragi eta arrainak




ONASKA

ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

BAZTAN

Lekaroz-Elizondo institutuak bide segurtasunerako saria irabazi du

Renaultek antolatutako lehiaketan Nafaroako lanik onena egin dute

tti-ppi-ttapa

Lekaroz-Elizondoko ikasleek sari bat jaso berri dute, bideko segurtasunari buruz Renaultek antolatu lehiaketan. Ikasle hauen proiektua izan da Nafarroako onena eta bere ikuspegia izan omen da sormen handienekoa eta originalena.

Osotara, zazpi ikastetxek hartu dute parte Renault-ek antolatu lehiaketan. «Denontzako segurtasuna» lelopean, ikasleek, bideko segurtasunaren inguruko proiektuak egin behar izan dituzte. Lekaroz-Elizondo Institutukoek, gaiari heldu diote gaur horren maiz ematen den arazo larritik, hau da, droga eta alkoholaren kontsumotik eta horrek dakartzan bideko segurtasun arazoak aztertu dituzte. Orain, Nafarroa ordezkatu beharko dute Madrilen, maiatzean eginen den Estatuko lehiaketan.



ARGAZKIA: LEKAROZ INSTITUTUAK UTZIA

Lehiaketan saritutako programaren barnean, su-hiltzaileek erakustaldia egin zuten Elizondon institutuko ikasle eta irakasleendako.

«Alda ezazu zure jokabidea» izenburua duen lana da, beraz, zortzigarren edizioaren garaile. Beraiek ordezkatu dute Nafarroa maiatzaren 5ean Madrilen eginen den finalean.

Baztango ikasleen lana aukeratu du epaimahaiak, bertzeak bertze, sormen eta origi-

naltasun handikoa omen delako. Gainera, azpimarratu nahi izan dute lan honek jorratu ikuspegia izugarri eraginkorra izan daitekeela, izan ere, bertze hainbat konturen artean, garrantzi handia eman baitzaie gazteen artean horren zabaldua dagoen droga eta alkohol kontsumo kontuei. Aitzine-

ra, Renault-ek lagunduko ditu ikasleak euren proiektua gauzatzen eta hori aurkeztuko dute Madrilgo lehiaketan. Bertzetik, antolatzaileek azpimarratu dute aurtengo edizioan Nafarroan parte hartzea dezentente igo dela.

Deialdia Renault-ek egiten du urtez urte; aurtent, «Denontzako Se-



PERTSONAIA

Xuban EUGI

Baztan ikastolako ikaslea Iñigo Arista lehiaketan saritua

Xuban Eugi, Baztan Ikastolako ikaslea, Iñigo Arista kultur elkar-teak 2003an antolatu-tako "ibilbide kultura-len" inguruan eginda-ko idazlanetan saritua izan da. Sari hauek Nafarroko Gobernuko Hezkuntza Departamentuak banatu zituen otsailaren 17an. Aurten, 158 ikastetxeko 4.458 ikasleek parte hartu zuten, denak Lehen Hezkuntzako 5. mailakoak, 32 hobere-nak sarituak izan-nik. Sari bezala argazki kamara eta "Santia-go bidea Nafarroan" bideo zinta jaso zuten.

gurtasuna» leloa erabili dute.

Osotara, aitzineko zazpi edizioak kontuan hartuta, estatu osoko 17.170 ikastetxek parte hartu dute lehiaketan.

• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

<p>• LANGILE AUTONOMOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garraioak - Elektrizitatea - Eraikuntza - Igeltseroak... <p>• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK</p> <p>• ENPRESA GUZIAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Nominak eta Aseguro Sozialak - Kontabilitateak - IVA eta IRPF - Garraioan asesoramenak - Diru-laguntza ezberdinak - Sozietateen inpostuak - Errenta aitortpenak
--	---

DONOSTIA
 Irua Sarriena, 4. bulego
 Tfno: 948 411933 Tfno/Fax: 948 411418
 info@asnap.me

ELIZONDO
 Sarriena, 51. bulego
 Tfno/Fax: 948 580 586
 elizondo@asnap.me

LEIOA
 Sarriena, 1. bulego
 Tfno: 948 262208 Tfno/Fax: 948 261949
 leioa@asnap.me

BURKAITZEA

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
 © 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAURI

SENPERE

Pacific zezena laugarren sailkatu da Pariseko laborantxa saloinean

INRA erakundeko zuzendariak demisionatu du

Franc DOLOSOR

Pacific Edouard Lopezen zezena laugarren sailkatu zen Pariseko laborantxa saloinean.

1603 kiloko zezen hunen jabea biziki kontent itzuli da Parisetik. Lopezek Parisen sailkatzea ohore handi bat dela erran dio TTIPI-TTAPARI. Heldu den urtean, berriz parte hartzea pentsatzen du baina lehenik tokiko txapelketa batzutan presentatu beharko da. Zortzigarren aldia da Edouard Lopezek zezenak ereman dituela Pariseko laborantxa saloinerat.

Euskal Herriko berze bi zezen ere untsa sailkatu dira Pariseko txapelketan. Heletako Etcheverry-ren Sopalin

lehen izan zen eta Zuraideko Garaten Tony bigarren. Bertzalde, urte guziz bezala, Irulegiko arnoek sariak irabazi dituzte Parisen.

INRAko zuzendariak demisioa aurkeztu du

Frantzia guziko ikerlariak egin duten bezala, J. Kaushik Senpereko INRAko zuzendariak bere demisioa presentatu du berriki. Arrantza eta erreken inguruan lanean ari den laborategi huntako nagusiak dio baliabide guti dutela jendartearen beharri errepusta bat emateko.

Kaushik-ek dio ikerlarien aldarrikapenak logikoak eta zilegiak direla. Bere erranetan, ba-



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Perez andereak familia osoarekin ospatu berri ditu bere 75 urteak.

liabide gehiago izatea maiz galdetu dute baina Parisek ez omen du sekulan erantzunik eman. Ikerlarien arabera, beren esku zen guzia egin dute ez demisionatzeko baina azkenean ezin izan dute bertzerik egin.

Senpereko INRAK 60 langile biltzen ditu, ikerlariak eta teknikariak bereziki. Gainerat, formatzen ari diren 70 ikasle aterbetzen dituzte. Nahiz eta gero eta lan gehiago duten, buxeta beti berbera dute eta horrek doi bat iluntzen du ikerketen geroa. 2010ean, gaurko iker-



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Senpereko ihauterietak, haurrak mozzorrotuak.

larien %40 erretretaratan da eta ordezkorik ez omen da izanen.

Elgarretaratzea

Etxeen eta lurren faltaz

eta prezioen haunditzeaz kezkatuak, Bataunak elgarretaratze bat egingen du Lizardian martxoaren 20an goizeko 11:00etan.

Inungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlazak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Maziza
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalam., s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Ehun urte bete ditu Ramona Varela Sarratea Dantxarineako amatxiak

Martxoaren 7an egin zuen mendea Zugarramurdiko Iparrean sortu eta Venta Manolon bizi den emakumeak

Margari eta Koro

Martxoaren 7an ehun urte bete zituen Ramona Varela Sarratea eta, guk dakigula, Urdazubi eta Zugarramurdin mendea egin duen lehen emakumea izan da. Bere adinerako osasun eta apetitu ederra dauka Ramonak eta urtebetetzea, jauna hartuz ospatu zuen. Pello Lascurain apezak dioenez, hilabetero joaten da bere etxera jauna ematera.

1904. urtean jaio zen Zugarramurdiko Iparrean eta gaur egun Dantxarineako Manolo Bentan bizi da. Leongo Blas Varela eta Angela Sarratea zugarramurdiarren alaba, sei anai-arreben artean bigarrena izan zen, Pakitaren ondotik eta Manuel (biak hilak), Elita, Pancho eta Mercedesen aitzinetik.

Iparreatik Urdazubiko Telleria auzoko Sutegia etxera joan ziren bizitzera.

Emakumearen Eguna sagardotegian

Emakumeen Eguna ospatzeko aitzakiarekin, Urdazubiko "Ugarana" emakume taldeak Astigarragako "Rezola" sagardotegira bidaiatu zuen, azkeneko urteetako usaia segituz. Martxoaren 5eko ortziralean 21 lagun animatu ziren bidai honetara, eta baita gustura pasatu ere.

Elurrak bi egunez telefono gabe utzi gaitu

Zonaldeko toki gehienetan bezala, gurean ere elurteak lan franko eman zuen, baina larrina bi egunez telefo-

norik gabe gelditzea izan zen. Astelehenean eta asteartean bai Urdazubin bai Zugarramurdin ez zuten telefono mugikorrek baizik funtzionatu. Gorramendin zegoen arazoa, bainan elurragatik teknikariak ez ziren pasatzen ahal, eta gainontzeko errepideak garbitu arte esperatu behar izan zen "quitatieves" edo elur kentzeko tresneria etorri eta bidea garbitzeko.

Eskual dantza ikastaldia

Eskual dantza ikastaldi bat antolatu da Zugarramurdin. Irakaslea Maider Amorena da eta klaseak larunbatetan "Akelarrean" emanen dira. Momentuan 13 haurrek izena emanda dute, eta helduentzako oraindik epea irekita dago.



Argazkia: Lander Santamaria

Argazki honetan ikusten duzuen Ramona Varela Sarratea da, eta gezurra iduri badu ere, gan den martxoaren 7an 100 urte bete zituen. Ramona Zugarramurdiko Iparrea etxean sortu zen eta gaur egun Dantxarineako "Venta Manolo"n bizi da. Zorionak, eta segi bixkor!

Zugarramurdiko pilota txapelketa

Aurten ere Zugarramurdiko Pilota Txapelketa antolatu da. Gizonezkoak larru eta go-

mazko modalitatean aritzen ahalko dire, eta neskak berriz, gomazkoan. Izena "Marixan" ostatuan eman behar da.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Aekain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

SARA

Frantziako pasaka txapelketa irabazi dute Arrieta eta Elizeirik

Final erdietan sartzeko aukerak baditu oraino errugbi taldeak

Xan eta Saski

Jende ainitz hurbildu zen Sarako trinketera martxoaren 7an pasakako Frantziako txapelketaren lehen eta bigarren mailako finalak ikusteko. Bigarren mailako finalean, Arrosa eta Iso-ko baigorriarrak aritu ziren Larrea eta Daguerre senpertarren aurka. Partida orekatua izan zen bainan azkenean baigorriarrak gaina hartu zuten 13-12 irabaziz. Lehen mailan iaz Sarako taldeak, Arrieta eta Elizeiri, Euskal Herriko eta Frantziako txapela jauntzi bazuten, aurten Euskal Herriko txapelketan kale egin zuten final laurdenetan Baigorriko talde baten aurka. Beraz, final hori zuten txapel bat jauntzeko aukera bakarra. Ongi jo-



ARGAZKIA: XAN

Elizeiri eta Arrieta saratarrak Frantziako xapeldun izan dira lehen mailan.

katuz hastapenetik bukaeraino ez zuten huts egin eta Baigorriko Zuburu eta Lataste menperatu zituzten, 13-6.

Errugbia

Sarako jokalariei gelditzen zaizkien bi ma-

txetatik bat irabazten badute final erdietako txartela lortuko dute. Hemen aipatu bezala, azken matxetan bederen bat irabazi behar zuten etxetik kanpo. Ustegabeen multzoko bigarren zen Pomarez menperatu zu-

ten Landesetan 11-15. Azkaindarren aurka berriaz sufritu zuten. Auzoko taldeak zuen joko gehiena erakutsi, baina saratarrak eraginkorrak izan ziren. Norvehiagokaren islada ez bazen ere, 22-7 irabazi zuten.

FLASH

Zaldi ibilaldia


Turismo Bulegoak eta Olhaldea zalditokiak ibilaldi bat antolatzen dute zaldiz apirilaren 4an. (0033) 559542014 telefonoan eman behar da izena eta 10 euro gostako da. Jakin behar da parte hartzeko FFEko lizentzia edo asurantzako ageri bat beharrezkoak direla.

Zazpiak Bat dantza taldearen afaria

Martxoaren 27an, larunbatarekin, Sarako dantza taldeak afari bat antolatzen du Omordian 20:00etan. Izenak eman behar dira martxoaren 20a baino lehen elkarreko arduradun bati.

Trial txapelketa

Trial zale guziak kontent izanen dira aurten ere Akitaniako txapelketaren jardunaldi bat iraganen baita martxoaren 21ean, egun osoan, Xabalo eta Arrikoaren artean. Lau maila izanen dira eta parte hartzaile guziek gune guzietan hiru aldiz pasatu beharko dute.





EZKONTZAK

Kepa Joseba Lazaro Larrazabal eta **Maria Josefa Garmendia Urtizbera**, Bilbo eta Elizondokoa, otsailaren 21ean.
Francisco Javier Indabere Loperena eta **Amaia Goienetxe Urrutia**, Iruña eta Zarauzkoa, Elizondon, otsailaren 28an.
Armando Rafael Sanchez Ochoa eta **Kendys Chiquinquira Lozano Quintero**, Doneztebekoak, martxoaren 3an.



SORTZEAK

Eki Asiain Apezetxea, Goizuetakoa, otsailaren 10ean.
Riad Boumadani, Leitzakoa, martxoaren 2an.
Mikel Mikelarena Ariztegi, Oizkoa, uz-tarrilaren 27an.
Xuban Illarregi Ariztegi, Oizkoa, otsailaren 14an.
Oskar Illarregi Anduaga, Oizkoa, otsailaren 17an.
Iratxe Loiarte Petrikorena, Igantzikoa, otsailaren 19an.
Lizar Sein Arburua, Igantzikoa, otsailaren 28an.



HERIOTZAK

Mariano Barrenetxe Etxenike, Anizkoa, otsailaren 16an, 85 urte.
Tomas Martin Gallego, Amaiurkoa, martxoaren 5ean, 98 urte.
Julia Maia Olaetxea, Lesakakoa, otsailaren 28an, 48 urte.
Antonio Elizaintzin Oronoz, Iurritakoa, otsailaren 29an, 69 urte.
Francisco Azpiroz Urrutia, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 1ean, 90 urte.
Ignacio Berho Tarancon, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 2an, 79 urte.
Santiago Telletxea Elizalde, Zubietakoa, martxoaren 8an, 88 urte.
Maria Lasa Rekalde, Aranokoa, martxoaren 3an, 89 urte.



Eskela eta eskertzak 948 631188

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
 CAFE DE LA MAIRIE
 MAIXAN ETA VÉRONIQUE
 SARA • TEL 0559542519

gaztelu
iturgintza
 Kalefakzioa
 Saneamendua
 Gasa
 © 948 510086 / 510156
 fax: 948 610856
LEITZA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Xanti

ITURBIDE ALMANDOZ

*Gure gau ilunak
 argituko dituen izarra
 buruan bueltaka dabilen
 irriaren oihartzunaren islada
 zu gure bihotzean beti altxatuko
 dugun Xanti maitea izanen zara.*

**Zure ama eta zure senideak
 Igantzin, 2004ko otsailaren 23an**

Mila esker une latz hauetan
 gurekin egon zareten guzietan

HERRI KIROLA

Donato Larretxea beteranoa eta Xabier Mindegia gaztea Urrezko Aizkolariak

Arantzakoak eta Beintza-Labaiengoak finala irabazi zioten Peñagarikano eta Txapartegiri

A.A.

Donato Larretxeak egin zuen tartearen 29an Azepeitian jokatu zen Urrezko Aizkolariaren finalean, eta Xabier Mindegiarekin batera txapela jantzi zuen. Aizkolari arantzarra izan zen onena, eta une honetan dagoen aizkolari onena dela ere erakutsi zuen. Azken urtean bi aldiz irabazi du Binakako Urrezko Aizkora, eta horrekin batera bakarkako Urrezko Aizkora eta Euskal Herriko eta Nafarroako txapelak ere lortu ditu.

Finala polita suertatu zen eta argi ikusi zen bi bikoteen artean ez zegoela alde handirik. Hasieratik nahi zituzten bi puntuak eskuratu, txanda libreko azken saiora finala irabazteko aukerakin iristeko.

Saioari hasiera emateko txanda librean 80 ontzako bat moztu behar izan zuten. Lehenengo bi puntuak nafarrek eskuratu zituzten. 3'39" izan zen Larretxea eta Mindegiaren denbora eta kolpe bat gehiago behar izan zuten Peñagarikanok eta Txapartegik.

Ondoren, kana-erdiakoaren txanda iritsi zen. Lau saio, eta bakoitzeko irabazlearentzat puntu bat. Larretxea eta Txapartegi lehiatu ziren. Kolpe bakar batez irabazi zuen Larretxeak (1"30").

Peñagarikano eta



ARGAZKIA: GARA

Xabier Mindegia eta Donato Larretxea, sariekin kontent Urrezko Aizkolariak txapelketaren finala Azepeitian irabazi ondotik.

Xabier Mindegiaren arteko lehia ez zen horren estua izan, Beizamakok ongi irabazi baitzuen. Larretxea eta Peñagarikanoren arteko lehia arantzarrak aisa irabazi zuten. Azken txandan Mindegia eta Txapartegiren arteko saioa izan zen eta Aizarnakoak arazorik gabe irabazi zuen. Bikote bakoitzak bina puntu eskuratu zituen eta dena txanda libreko azken saioan erabakiko zen.

Horren aitzinetik, orde, txandakako bertze saio bat ere bazegoen. Bi bikoek 60 ontzako bi moztu behar zituzten, enborretik enborra txanda emanda. Saio

politza izan zen hori ere, azkenean lau segundoko aldea egon baitzen. Peñagarikanok eta Txapartegik irabazi zuten. Irabazleak bi puntu jasoz zituen, eta saio honen bukaeran bi bikoiteak launa punturekin geratu ziren.

Txanda libreko saioa ere iritsi zen, eta horrek erabaki zuen auzia. Bi kana-erdiko, 60 ontzako lau eta bi oinbiko moztu behar zituzten.

Peñagarikano eta Txapartegi hasi ziren aitzinetik eta horrela boita zuten lehen enborra. Bigarrenean aldea gehitu zuten, Xabier Mindegiak epaia itxi baitzuen eta dezente kosta zi-

tzaion enborra mozte.

Hortik aitzin hasi zen Donato Larretxearen erakustaldia. Jo eta su hasi zen, lanik gehiena eginez, eta Mindegiak hortik aitzinera ongi moztu zuen enborra. Laugarrenean ia harripatu zituzten gipuzkoarrek eta lan erdietan segundoko gutxi batzuk aitzinetik ziren. Aldea handitu zuten nafarrek eta azkenean minutu erdiren abantailarekin garaipena eraman zuten (17'55"). Larretxea izan zen protagonista, nahiz eta Mindegiak lana txukun egin zion txanda librekoan, eta honentzat garaipena garrantzi handikoa izan zen.

Donato LARRETXEA



Guk ere ez genuen finala irabazterik espero. Txapelketa hasie-

ran inork ez zuen pentsatuko finalean izanen ginenik ere. Bagenekien saio ona egingo genuela, baina arerio txarrak genituen irabazteko. Hala ere, txanda librean uste baino hobeto moldatu gara eta azkenean irabazi egin dugu. Ez gara etorri itxaropena galduta, baina bai irabaztea zaila izango zela pentsatuta. Uste dut Mindegiak oso saio ona egin duela. Gaztea da, sasoi du eta indarra ere bai. Goi mailara iritsiko da.

Xabier MINDEGIA



Finaleraino iritsi izanarekin gustura nongoen, baina irabazteak

indar handia ematen dit. Ez naiz aritu entrenamenduetan bezala, auspoa bete egiten baizitzaidan, nerbioak tarteko. Oso ona izan da niretzat Larretxearen ondoan irabaztea. Eguno onena izango da, eta asko ikasi dut berarekin aitzinera arituta. Ni Mindegia zaharraren iloba naiz. Berak maila handian jarraitzen du, eta ni iristen ari naiz. Iaz berak irabazi zuen, eta aurren nik.

PILOTA

Mendiola anaiek eta Fagoagak bigarren aldiz irabazi dute paxaka txapelketa

Oiztarrek 9-3 irabazi zieten Irurritako Urrutia anaiei eta Ballarenari

A.A.

Larunbatean jokatu zen Irurritako Aranabia pilotalekuan Laxoa elkartek bosgarren aldiz antolatutako paxaka txapelketaren finala. Joan den urtean bezala, Mallerrekako hirukotea nagusitu zen, Oitzko Lander eta Iñaki Mendiola anaiek eta Sergio Fagoagak 9 eta 3 irabazi baitzieten Irurritako Oskar eta Igor Urrutia anaiei eta Mikel Ballarenari. Kasik joan den urteko finala errepikatu zela erraten ahal da, Jose Ignacio Elizaintzinen ordez Ballarena izan baitzen aurpegi berri bakarra. Irurritarrak errebantxa hartzen saiatu



ARTXIBOKOA

Iaz bezalaxe, aurten ere Mendiola anaiek eta Fagoaga nagusitu dira.

ziren, baina oiztarrak jaun eta jabe izan ziren.

Joan den urtean hasiera berdinduaren ondorena

9 eta 4 irabazi zuten eta aurten hiru jokutan

utzi zituzten irurritarrak. Paxaka txapelketaren bortz ediziotan, lehenbiziko aldia da talde baten bigarren aldiz jantzen duela txapela, bi aldiz segidan gainera. Hori gutti balitz, kontuan hartu behar da, oiztarrek hirugarren finala jokatu dutela segidan.

Final nagusiaren aitzainetik, hirugarren posturako lehia jokatu zuten Irurritako bi hirukoteek. Guillermo Etxenike, Iñigo Unanua eta Joseba Urtaşunek ezin izan zuten joan den urteko postua errepikatu eta 7 eta 9 galdu zuten Jesus Etxenike, Cesar Iñarra eta Jesus Garateren kontra.

Euskal Herriko klub arteko txapelketaren bi final Goizuetan jokatu ziren martxoaren 5ean

Kadetetan, Umore Onako Jon Apezetxea eta binaka Aurrerako Narbarte eta Beloki txapelkun

Martxoaren 5ean jokatu ziren Goizuetako udal pilotalekuan Euskal Herriko klub arteko pilota txapelketaren bi final. Bi partidak esku huskako jokamoldean jokatu ziren, kadeteen kategorian.

Buruz buru, Goizuetako Umore Onako Jon Apezetxeak ez zuen arazorik izan txapela jantzeko, 22 eta 1 irabazi baitzion Sopelako Kurene taldeko Eder Ibarrari. Binakako finala, lan gehixeago egin



UTZITAKO ARGAZKIA

Sari banaketan, zapelak jantzi ondotik ageri dira Narbarte, Beloki eta Apezetxea pilotari gaztetxoak, Olaizola anaiek, Umore Ona eta Aurrerako ordezkariak eta Goizuetako alkatearekin batera.

behar izan zuten eskualdeko pilotariak, baina halere erraz antzean gailendu ziren. Le-

tzako Aurrera taldearen izenean aritu diren Jon Narbarte goizuetarrak eta Zuhaitz Beloki lei-

tzarrak 22 eta 14 irabazi zieten Elorrioko Berriotxo taldeko Salaberria eta Larrinagari.

AGENDA

egunez
egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Martxoaren 16tik apirilaren 3a bitarte Arizkunenean Lekarozko Institutuak antolatua, *Adierazten irakatsi, begiratzen ikasi* Plastika Hezkuntzako Mintegia.

ETXALAR

Martxoaren 18tik apirilaren 18a bitarte Elizondoko Clara Santamariak paratuko du olio-pintura oihalean egindako margolaren erakusketa Kultur Etxean. Lan egunetan 16:00etatik 19:40etara eta asteburu eta besta egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

SOLASALDIAK

LESAKA

Martxoaren 26an Nabaralde taldearen aurkezpena 20:00etan Kasinoan, Arrano elkarteak antolatua. Hizlaria: Erlantz Urtasun.

ETXALAR

Martxoaren 24an Foresna, Nafarroako baso-elkarteak solasaldia eskainiko du 19:30etan Kultur Etxean.

BESTAK

GOIZUETA

Martxoaren 27an «Txino» auzoko festak, Gazte Asanbladak antolatua. Xehetasunak 20. orrian.

BERTSO SAIOAK

ARANTZA

Martxoaren 21ean bertso bazkaria Zahar Txokoa, Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenarekin.

LESAKA

Martxoaren 28an Nafarroako bertso txapelketaren finala, 16:30etan Zambran.

TELEBISTAKO TXOKOA



ARIZKUNGO PEDRO ZAPATAREN ESKUTIK

Burnia eskuz lantzen den leku bakanetako batera bisita

Ortziraleko erreportaiaren burnia eskuz lantzen den toki bakanetako bat bisitatuko du Joseba Olagarai gure lankideak. Esku hutsez egiten den arotxaren lana Nafarroako mendialdeko leku arront guttitan mantentzen da oraindik, eta garai batean hagitz hedatua bazegoen ere, zaila suertatzen da gaur-egun horietako bat harrautzea. Erreportai honetan, Arizkuna joan eta Pedro Zapata arotzarekin bilduko da Joseba. Elkarriketa luze eta zabal batean bere lanbidearen ingurukoak jakiteko aukera izanen dugu. Bisita honetan burnia lantzearen artea azalduko digu Pedrok, burne-zati bat

berotu eta mailua eta ingudearekin pieza bat nola egiten duen erakutsi bitartean. Ondotik, etxean bertan duten erakusketara ere eramanen gaitu, berak urtetan eginitako pieza artistikoak ikustera. Erreportai berexi eta interesgarria, gustu duenak ortziral honetan Musika Bizirik saioaren ondoko erreportaiaren ikusteko aukera izanen duena.

MUNDUKO SOKATIRA TXAPELKETA BIDEAN

Otsailaren 19tik 22ra Eskozian jokatzen Munduko sokatira txapelketaren oroigarria bidean izan nahi baduzu, deitu ttipi-ttapa.

DISKAK



«Xiberoko kantüak»

Xiberoko kantüak

ELKAR, 2004

Zuberoa, gure herriko kantu lirikoarentzat, iturri agortezina eta funtsezko irudia dugu. Hango lurra eta zerua, bertako kondairak, tragediak eta sinbologiak, hala nola hango oroimenean nostalgia bizia, ezteki barreiatu dituzte ekialdeko kantari handiek. Xiberoko kantüak izeneko disko hau, jatorrizko erregistro zaharrak gaurkotzen dituen bildumako erreferentzia duzu, lehena, 1999. urtean karrikaratutako «Etxahun 1907-1979» diskoa izan baitzen. Argitalpen honen helburua anitza da: alde batetik, bertan aurkezten diren xiberotar sortzaile ezagun eta ezezagunei dedikatuturiko konpilazioa dugu; bertez aldetik, hauen kantu ederrak urrezko airez ematen dituzten kantarietako aitoren zintzoa ere bada. Era berean, herri oroimenearen transmisio lanean jardun duten eta dihardutenei egindako omenaldia ere bada.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Otsailaren 27tik martxoaren 5era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,50 € (+4,50 €)

Zerri gizona
1,055 € kilo. (+0,055)

Zerramak:
0,500 € Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3, 13 (=)

1.koa 2,98 (-0,03)
2.koa 2,85 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,18 (=)
1.koa 3,05 (-0,03)
2.koa 2,92 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 251,00 (=)
idixkoak 253,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 194,00 (=)
idixkoak 218,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/2,96
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/ 5,70
8-10 kilokoak: 4,15 / 4,65

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Ikusmena eta ordenagailua

Giza ikusmena urrutira eta eremu irekietan ikusteko egina dago. Gaur egun ordea, inguru erabat artifizialean dago, hurbiltasuna, eremu itxiak eta mugimendu murrizak nagusi direlarik. Gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dute ordenagailua denbora luzez, laneko denboran ez ezik aisialdian ere begiak pantailan finkatuak ditzutela. Ordenagailuaren pantailaren aitzinean, hurbileko eskariaren eta erabiltzailearen ikusmen sistemaren erantzun ahalmenaren arteko oreka bilatu beharko litzateke. Bien arteko harreman egokia funtsezkoa da lanean ziur eta eroso aritzeko. Oreka hausten denean, hau da, eskariak ordenagailuaren erabiltzailearen ikusmen ahalmena gainditzen duenean, arazoa agertuko da: ikusmen nekea, lan eritimoaren jaustea, akatsak gehitzea edo eginbeharra uztea.



Pertsona-ordenagailu estudio indibidualizatuaren bitartez, bi arlotan egiten da lan. Alde batetik, azterketa optometrikoarekin ordenagailu horretan zehazki lan egiteko behar den konpentsazio optikoa aukeratzen ahal da. Hau ez da, nahitaez, urrunerako edo irakurtzeko behar denaren berdina izan behar. Bertze aldetik, postura eta ergonomia arauak aholkatzen dira (argiztapena, altzariak...), inguruaren presioa murriztera bideratuak.

ORDENAGAILU ERABILTZAILEENDAKO AHOLKUAK

- Pantailarako lan-tartea: Lanerako ikusmen tartea eroso utzi begien eta pantailaren artean.
- Monitorearen altuera: Beheiti begiratzea aitzinera begiratzea baino erosoagoa da. Monitorea begietatik beheitiago jarri, 20 eta 50 gradu artean (ISO arauak).
- Betaurrekoak: Lanean monitorearekin ohiko tarteari dagokion graduazio egokia erabili.
- Ordenagailuaren aitzinean

arretan arreta gehiago behar denez, begiak guttiago kliskatzen ditugu eta begiak idor ditugunaren sentsazioa agertzen ahal da. Ukimen-lenteak erabiliz gero, oraindik gehiago somatzen da sentsazio hori.

- Pantailaren gainean isladak eta argi itsualdiak saihestu.
- Tarteka txekuea egitea komeni da, sintoma aunitz ezarian agertzen baitira eta ez dira nolanhahi somatzen, baina zure errendimenduan eta erosotasunean eragin dezakete.

LIBURUAK



Eta ni zer?

Fernando MORILLO

ELKAR, 2004

16 urteko neska da Larraitz: bizia, azkarra, sentibera, jatorra... baina ez da polita, eta horrek min handia ematen dio. Alferrik esango diote "barnea" dela garrantzitsuena, gero inguruko mutil guztiak bere ahizpa Usoaren gibeletik baldin badabilta. Nobela atsegingarri eta aldi berean mamitsua burutu du berriz ere Fernando Morillok, gazteen mundua eta arazoak islatzeko ohi duen trebeziarekin. Izan ere, politizatea, gazteentzat ez ezik, per-

tsona ororentzat da kezka, airtortua edo ezkutua, eta horrez gainera zer pentsatua ematen duen gai sakona. Trama arin eta elkarrizketaz betea osatu du egileak, filosofia tanta batzuekin han-hemen. Bertzalde, aipagarria da sexua bezalako gai bat naturaltasunez lantzeko erakutsen duen finetasun eta maisutasuna. Edozein irakurlek ongi pasatzeko nobela, eta, era berean, gaztearen edukazio sentimentala garatzen lagunduko duena.

IKASTAROKAK

BERA

Otsailaren 27tik ekaina bitarte Ahots teknikak eta Munduko abestiak ikastaroa antolatu dute Berako Abesbatzak eta Lamixine Taldeak, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz. Ortziraleroko 19:00etatik 21:00etara Isidoro fagoaga Musika Eskolan. Izen ematea 012 telefonon.

Martxoaren 2tik ekainaren 22ra Irakurri eta Idatzitako tailerra antolatu du Uxua emakume taldeak Kultur Batzordearen laguntzarekin. Astearteko, Jesusen Bihotza ikastetxean 19:00etatik 20:00etara.

LESAKA

Martxoaren 18an bide hezkuntza parkea goitiko frontoian, Irain eta Tantarumairu ikastetxetako Ongizate batzordeek antolatuta.

SUNBILLA

Martxoaren 20 eta 21ean eski alpino ikastaroa antolatu du Illurdi mendi taldeak, maila guzientzat.

Martxoaren 27 eta 28an mendiko eski ikastaroa antolatu du Illurdik, maila hagitz ona dutenentzat.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Martxoaren 15etik 21era

Bera (M.J. Sanz), NARBATE, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (M.T. Plaza).

Martxoaren 22tik 28ra

Lesaka (O. Altzate), Doneztebe (J.A. Mendiola), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

Mar. 29tik apirilaren 4ra

Arantzeta, Bera (M.L. Apeztegia), Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (A. Gimeno).

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. T'tipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea t'tipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. t'tipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

UKULU PROMOZIOAK, S.L.

**Urbanizatutako Lur Sailen
Salmenta 500 m²
Sunbillan, Nafarroako Iparraldeko
Natur Ereku preziatuan, mendiari
begira. SUNBILLA. Irundik 20
minutura eta Iruñatik 30 minutura.**

Tel.: 948 451 596/ 667 424 635

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

ERRATZU. Pisua salgai. 98 m², mobleztatua. ⌘ 678 209907

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ⌘ 626 852937.

DONEZTEBE edo inguruetan pisua errentan hartuko nuke. Lehenbailehen behar dut. ⌘ 616 325278.

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. Lehenbailehen. ⌘ 635 587552 (19:00etatik aitzinera).

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. Lehenbailehen. ⌘ 666 985449 (18:00etatik aitzinera).

BERA-LESAKA-ETXALAR Pisua errentan hartuko nuke. ⌘ 687 039889.

BAZTAN. Pisua errentan hartuko nuke urte osoarako. ⌘ 690 167449 (10:00etatik 22:00etara).

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

BERA. Pisukidea bilatzen dut. ⌘ 669 422122.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

SUNBILLA. Bustitz ostatua errentan eman nahi da, ige-

ADOS

• BERA-LESAKA.
- Terrenoak erosi nahi dira.
- Pisuak erosten dira.
• ELIZONDO. - Pisuak eta terrenoak erosten dira.
• BORTZIRIAK. - Terrenoak erosi nahi dira.
• DONEZTEBE. - Santa Luzia plazan lokal komertzialak salgai.
- 114 m²ko pisu bat salgai. Berri-berria.

BAZTAN-BIDASOAN: Baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai. Aukera zabala.

948 451 841 / 607 978 656

ri-lekuaren ondoan. ⌘ 948 450504.

LANA

301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da lan egiteko, garbiketa lanak egiteko, sukalde garbitzaile esperientziarekin. ⌘ 678 246733.

Hemengo emakume bat eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ⌘ 606687363 948637545.

Neska eskaintzen da ostatuan lan egiteko, etxeko lanak egiteko edo haurrak zaintzeko. ⌘ 687 039889.

Esperientzia duen emakumea eskaintzen da sukalde laguntzaile aritzeko, afarien txandan eta larunbat arratsetan lan egiteko edo etxeko lanak egiteko arratsaldetan. ⌘ 948 451437 (arratsalde edo gauetz, ber-



LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, beheitiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua.
- 1.500 m²ko lur eremua inguruan.

⌘ 948 637281 (denda orduetan)

ADOS

**AGENTE KOMERTZIAL
BAT BEHAR DA**

- Betebeharreko baldintzak:**
- Emakumea izatea
- Euskaraz jakitea
- Gida baimena izatea
- Autoa izatea

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu:

948 451 841

tzela mezua utzi erantzungailuan).

DONEZTEBE. Emakume batek etxeko lanetan edo haurrak edo zaharrak zaintzen lan eginen luke. ⌘ 637 997526.

Klinika laguntzailea eskaintzen da adinekoak edo haurrak zaintzeko. Laguntza beharra dutenak zaintzen esperientziaduna. ⌘ 690 167449 (10:00etatik 22:00etara).

Emakumea eskaintzen da adinekoak edo haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko, orduka. ⌘ 676 222055.

Emakumea eskaintzen da

ARANTZA ZYRGINDEGI

Jose Miguel Ermandonea

Klase guztietako
zurgin lanak

Osina auzoa © 948-634068 • ARANTZA

garbiketa lanak egiteko edo haurrak zaintzeko, orduka edo egun erdiz. ⌘ 678 246733.

LANA

302 Eskaintzak

DONOSTIA. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. ⌘ 943 428750 (Begoña).

BERA. Mutila behar da eguneroko ibardinen lan egiteko. ⌘ 948 630175 (9:00etatik 18:30etara).

BERA. Ibardinen zerbitzaria behar dugu asteburu eta udan lan egiteko, bakarrik eguerditan. ⌘ 629 694443.

Gidaria. Nafarroako Gobernurako eta Burlatako Udaletxerako 13 lanpostu. Informazioa doan. ⌘ 948 199596.

Harreragile-telefonista. Nafarroako Gobernurako eta Udaletxeetarako lanpostuak.

L n l z Itz

L NESK INTZ

GI I K

N f r k G m u t
V l t x e n
I n s t u l r k.

MEK NIK I K

N f r k G m u t
V l t x e n
I n s t u l r k.

H E GILE K

TELEF N Z I N K

N f r k G m n
I n s t u l r k.

EL I K

N f r k G m u t
V l t x e n
I n s t u l r k.

r s t z t z. Inf r m z h n.

1 5

Prezioak jautsi dira eta hankapean daude!

BEEP REDDIO 3000

Intel® Pentium® 4 prozesadorea
Hyper-Threading teknologia 3 GHz. tara

512 MB RAM DDR

80 GB disko gogorra 7200 rpm

DVD legeg abuztua

ATI Radeon 9800 XTxarte
9200 128 MB

TFT 15"

TFT 15" 3000€

329€

PC + Itelua + Sagu + Buztigarria

739€

BEEP BERA
Kanttonberr. 3 Tel: 948 63 01 32

BEEP

MENDAUR MOTOR
© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Frontera TD 3 ate, Opel Tigra, Terrano 3 ate, Frontera Sport gasolina, Mitsubishi Pick-up, Land Rover Discovery D5, Suzuki Yimy, Opel Zafira.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

SAMPI ARAGON ZOANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

© 948450334 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

BOAN TAILERRA

AUTOEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA

© 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerra

Iturlandeta, 9 • © 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA FIAT Zerbitzua

Eskola Graduatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Zaindaria. Osasunbideak 43 lanpostu eskaintzen ditu, 5 ezinduentzako. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Bigarren Hezkuntza. 202 plaza libre BH, Lanbide He-

BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

2004ko apirilaren 1ean

Bera9etatik 12etara
Etxalar13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar

ziketa eta Hizkuntza Eskolan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Haur Hezkuntza. Plaza libre ikastetxe publiko eta haurtzaindegietan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Zaintzailea. Haur eta zaharrendako. Nafarroako Gobernuan 16 plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Basozaina. Nafarroako Gobernuan 9 plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Suhiltzailea. Lanean laister hasteko, lan baldintza bikainak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Garbitzaileak. Erakunde Ofizial eta Udalteketan. Laies-ter eskaintzak Donezteben

eta Burlatan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Elektrizista eta iturginak. Eskuratu instalatzaile titulua. Lan deialdiak laster aterako dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

MOTORRA 501 Salerosketak

Seat Ibiza TDI 90 salgai. NA-AZ. 70.000 km. ☎ 659 174688.

Suzuki Balero 1.6 salgai. Lagundutako direkzioa, kristal igogailu elektrikoa, itxiera zentralizatua, 100 zaldi. 3.000 euro. ☎ 948 631441 (13:00etatik 16:00etara eta 20:30etatik aitzinera) edo 637 766520.

Volkswagen Transporter 1.6D autoa salgai, 1999koa.

BERAko UDALAK

LIBURUTEGI TEKNIKARIA HAUTATZEN DU

Bete beharrekoak:

- Formakuntza akademikoa: Lanbide Heziketa II edo Goi Mailako Batxilergoa
- Euskararen ezagutza: EGA edo baliokidea (Ez dutenezat proba baztertzaila egingen da)
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana izatea.

Eskaintzen da:

Aldibaterako kontratua; Administrazio C maila. Kurrikuluma Berako Udalean aurkeztu behar da martxoaren 25eko 13:00ak baino lehen.

Informazio gehiago 012 telefonon

O-AT. 2.500 euro. ☎ 659 084585.

Suzuki Samurai autoa salgai, NA-Z. ☎ 699 461394.

Honda Accord 1.800LS autoa salgai. 5 ate, 136 cv, 62.000 km. 2000 urtekoa. Full equipu. ☎ 687 631624.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Bi xerri 130 kilokoak salgai. ☎ 659 110076.

Lastoa (ahotza) pacon haundietan salgai. Etxera eramaten da urte guzian. ☎ 607 457004 - 943 366040 (gauetz, Dani).

DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

Urrezko eskumuturra galdu da. Plaka batean «Ara-

celi» izena jarria dauka. ☎ 948 631324.

DENETARIK 702 Salerosketak

Igeltseritzako puntalak salgai. ☎ 600 902863.

Traktorearendako erremolketa bi behi eramateko, salgai. ☎ 948452110.

Belarra higitzekoa eta biltzeko **piruleta** salgai. ☎ 948452110.

Mertzzeria ixten denez, **apalategia, bi mostradore eta kutxa erregistratzailea** salgai. ☎ 687 770130

DENETARIK 703 Bertzelakoak


Frantses klaseak hartuko nituzke. ☎ 686891569

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.



JANIRE ANDRES ZAPIAIN beratarrek 7 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



ION BIDAUR TELLETXEA igantziarrak urtea bete du martxoaren 7an. Zorionak eta muxuak familia osoaren eta bereziki Xabieren partetik.



ANDONI PRIETO ETXEGARAI beratarrek 2 urte beteko ditu martxoaren 22an. Zorionak eta muxuak guztiaren partetik.



MAIANA ALTZUGUREN GOIA beratarrek 2 urte bete ditu martxoaren 12an. 2 muxu goxo gure mononari, Lesakako familia eta bereziki Josuren partetik.



AINARA AGINAGA ETXAMENDI elizondarrak 4 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



MAIANA ALTZUGUREN GOIAK martxoaren 12an 2 urte bete ditu. Muxu haundi bat Alexen partetik.



JANIRE MARTIN GOIA lesakarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak.



EIDER LOIARTE CABEZAS beratarrek 3 urte bete ditu martxoaren 4an. Zorionak gurasoen eta familiaren partetik.



OIER ETA XUBAN KAÑAMERES IBARRA berrioztarrek martxoaren 15ean 5 eta 8 urte bete dituzte. Zorionak aita eta amaren partetik.



MIKEL BALLARENA TELLETXEA elizondarrak 4 urte bete ditu martxoaren 13an. **FERNANDO BALLARENA** aitak berriz, martxoaren 19an eginen ditu urteak. Zorionak, aunitz urtez eta ongi pasa familiaren partetik.



MIKEL LARRETXEA LUKANBIO doneztebarrak 6 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak familiaren eta bereziki Aneren partetik. Muxuak bihurri.



XABIER MAYOR-DOMO ALMANDOZ beratarrek 8 urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik. Aupa gure gitarrista!



EDURNE ZUBIETA Sunbilla-ko ttipi-kamarak urteak beteko ditu martxoaren 18an. Aunitz urtez frontenista onenari lankideen partetik. Aupa Kurni!!



Zorionak Igantziako **NINBE** sorgintxoari eta Subillako **JULEN JUANKORENA** pilotari tikiari urtea eta 7 urte bete dutelako martxoaren 9 eta 12an. Etxekuk.



Martxoaren 20an **MATXIKOTE ETA NEKANE** espostuko dira. Zorionak! Ongi pasatu eguna. 1974ko kintoak (Bera, Etxalar eta Igantzi).



ZORIONAK TOLARE!! Etxalartarrak martxoaren 24an 21 urte beteko ditu. Ea zure... gehiago erakusten duzun. Muxu aunitz koadrilaren partetik!



BEÑAT IRAZOKI etxalartarrak martxoaren 25ean 17 urte beteko ditu. Aupa playboy eta txanpainaren esperoan gelditzen gara. Koadrilaren partetik.



ALAZNE AGERRE ETXALAR almandoztarrak 4 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak familiaren eta bereziki Jaione eta Garbiñe ahizparen partetik.



ASIER TELLETXEA APEZTEGIA beratarrek 2 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



IRUNE ETA ITSASO ELIZAGOIEN BIZENTE etxalartarrak 11 eta 9 urte beteko dituzte martxoaren 29an eta apirilaren 4an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



OIHANE ETA NARDO ZUGARRAMURDI ZUBIETA goizuetarrek 8 eta 3 urte beteko dituzte martxoaren 23an eta 12an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Oieren partetik.



Igantziako **BEÑAT ETA MARIA YANCIK** martxoaren 11 eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana Igantziako familiaren partetik.



UXUE lesakarrak 3 urte bete ditu martxoaren 15ean. Zorionak eta muxu haundi bat.



IBON IRASTORZA URDANIZ beratarrek 4 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak Elizondo, Lesaka eta Iruñeko familia eta bereziki Garaziren partetik.



XABI BENGOTXEA REKARTEA doneztebarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 27an. Aunitz urtez atta, ama eta bereziki bere ahizpa Joaren partetik.




AINHOA ETXEGARAI ELGORRIAGA beratarrek 2 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



ASIER TELLETXEA eta **AINHOA ETXEGARAI** beratarrek 2 urte beteko dituzte martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu bat Unaien partetik.






ARANTXA ETA MAIALEENAK martxoaren 13an 4 urte egin dituzte. Zorionak familiaren partetik.



ANDONI ZOZIA URSUEGI urroztarrak 9 urte beteko ditu martxoaren 27an. Zorionak familiaren eta Mikelen partez. Musuak. Segi horrela!

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO

TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

ttipi



TXARTELA rekin

ttipi-ttapa doan eta deskontuak

DESKONTUAK

>> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

ZALAIN MOTOR	Bera	%5 Errekanbiotan eta eskulanean
KATEA BIKE	Bera	%5 Konponketetan
DATUCELAY	Elizondo	%15 Bateria eta frenotan
SANSIÑENA	Elizondo	%10 Olio-aldaketetan

>> AUTO ESKOLAK

SEMPER	Bera	%10 Matrikulan
--------	------	----------------

>> ARGAZKI DENDAK

GOIKO	Bera	%10 Karrete, errebelatze...
AYLA	Bera	%10 Errrebelatzea
MENA	Doneztebe	%10 Errrebelatzea
MENA	Elizondo	%10 Errrebelatzea
ZALDUA	Doneztebe	%10 Produktuetan
ZALDUA	Elizondo	%10 Produktuetan

>> ARROPA DENDAK

EDURNE	Bera	%5 (30 € tik goiti, eskura ord.)
J.J. PICABEA	Doneztebe	%10 Galtza-marka batzuetan ez
KAMAMILA	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
KATTALINGORRI	Elizondo	%10
IPINGI	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)
FANTXIKE	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> BITXIDENDAK

ETXARTE	Lesaka	%10 Bitxietan
---------	--------	---------------

>> ELEKTROGAILU DENDAK

ALTZURI	Lesaka	%5 Elektrogailuetan
---------	--------	---------------------

>> ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA	Doneztebe	%5 Kosmetikan (30 € tik goiti) %10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Merkealdietan ez
-------	-----------	--

>> KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK	Elizondo	%8 (30 € tik goiti)
ZELA KIROLAK	Bera	%5
AGARA KIROLAK	Bera	%5 Kirol artikuluetan

>> LENTZERIAK

MARICRUZ	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
DEÑE	Lesaka	%10 Lentzerian
MAITE	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> LIBURU DENDAK

NAFARPRESS	Elizondo	%10 Liburu eta ikas materialetan Testuliburu eta bideoak ezik
LEGARRA	Lesaka	%10 Liburu eta ikas materialetan (10 € tik goiti). Estankotan ez
MAIMUR	Leitza	%10 oparitzeko artikuluetan

>> OPTIKAK

OSTARGI	Bera	%10 (30 € tik goiti)
ARGIBEL	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> PENTSUAK

MENDAUR	Doneztebe	%5 Zakurrena, katuen...
---------	-----------	-------------------------

>> TINDATEGIAK

JAIONE	Doneztebe	%10 (12 € tik goiti)
--------	-----------	----------------------

>> ZAPATADENDAK

KALOTXA	Bera	%5 (18 € tik goiti)
OSTIZ	Doneztebe	%5
TXINELKA	Lesaka	%10 (30 € tik goiti)
MOLINO	Irun	%10

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
saltzen dituen txartelak erosiz,
gauza aunitz lor ditzakezu:
ttipi-ttapa lagundu,
eskualdeko dendak bizkortu
eta erosketak merkeago egin

Informazio gehiago:

📞 **948 63 11 88**



EXCELENCIA EUROPEA

AENOR, Asociación Española de Normalización y Certificación, por concesión del Club Gestión de Calidad, otorga el Sello de Excelencia Europea por su Sistema de Gestión en el nivel 200-400, a

TOKI ONA Institutua

De acuerdo con la puntuación obtenida en la evaluación realizada siguiendo los criterios del Modelo EFQM de Excelencia.

Fecha de concesión del Sello: 13 de Noviembre de 2003
 Periodo de validez: 2 años
 Certificado n°: AENOR/CE/0002.03

Firma



Por AENOR

Toki Ona B.H.I.

2004/05 Ikasturterako

AURREINSKRIPZIOA

DBHn Martxoaren 22-26 bitartean

 LOGSE Batxilergoa eta Erdi Mailako L.H.
 Apirilaren 26tik Maiatzaren 7ra

Goi Mailako L.H. Ekainaren 1-11 bitartean



Eztegara Pasalekua, 34 - BERA

☎ 948625000 ☎ 948625032

Posta Elektronikoa: iesbera@pnate.cfnavarra.esWeb orria: <http://www.pnate.cfnavarra.es/iesbera>